

1. (1501-1505)



1.1. 1501. URTEA

1.1.1. Genoarrak auzitan Joan Lopez Narruondokoaren aurka

1501-I-27an *Errege Katolikoek* Valladolidtik Bizkaiko, Enkartazioetako eta Gipuzkoako agintariei gutun betearazlea bidali zieten. Errege-kantzelaritzan auzia zuten Simon Rastan, Jeronimo Caneva, Esteban Rubera eta Antonio Treco genoarrek Zumaiako Joan Lopez Narruondokoarekin. Joan Lopezek, izan ere, aipatutako genoarrei itsasontzia eta bertako salgai guztiak lapurtu zizkien.

Auzia lehenbizi Bermeoko Martin Ruiz Ertzillakoa alkatearen esku egon zen, baina gero, apelazio bidez, Errege-kantzelaritzara iritsi zen. Han epaiak eman zituzten, ikuspen eta berrikuspen mailan, Joan Lopez Narruondokoaren aurka. 1.500 dukat eta auzi-gastuak ordaindu behar zizkien Narruondokoak genoarrei. Ondoren Bermeoko alkateak Portuondoko karabela bat eta batel bat bahitu zizkion Joan Lopezzi, enkan-tean saltzeko asmoz, baina zumaiarraren hartzekodun batzuk azaldu ziren. Haiiek ziotenez, bahitutako on-

dasunak ez ziren Joan Lopezenak, hartzekodunenak baizik.

Gero, Errege-kantzelaritzako epaileek Joan Lopez-en fidatzaileen ondasunak bahitu eta exekuta zitzatela agindu zuten. Fidatzaileak Migel Perez Apraizkoa, Pedro Ibañez Ibietakoa eta Martin Joan Zallo ziren. Bakoitzari 500 dukaten ondasunak salduko zizkieten, eta auzi-gastuei zegokiena ere bai.

Ondoren Bermeoko Martin Ruiz alkateak Martin Arana probestuordeari agindua eman zion hiru fidatzaileen ondasunak exekuta zitzaizkien. Migel Perezek herrian itsasertzean zituen etxeak eta mahasti bat eskaini zituen. Migel fidatzailearen fidatzaile Antso Martinez Muxikakoa batxilerra izango zen. Pedro Ibañez Ibietakoak Arralden zuen mahastia eman zuen, eta fidatzaile Martin Ruiz Aroztegikoa bermeotarra zen. Martin Joan Zallok bizi zen etxea, ondoko baratzea eta San Migelgo mahastia eskaini zituen. Pedro Saez Burgoakoa upelgile bermeotarra zen Martinen fidatzaile.

1.1.1. irudia. Narruondoko Baiona-Peña garajea.



Orduan alkatearen aurrera Katalina Asuaga eta Jordana Ibiagaren ordezkariak azaldu ziren, eta bahitutako ondasunen jabe zirela eta bahimendua ken zezala eskatu zioten. Genoarren prokuradoreak zioenez, ordea, pregoiak eta aginduak behar bezala emanda eta sinatuta zeuden, eta enkantean ondasunak Frantzisko Ginovesi, Bermeoko auzotarrari, eman behar zitzaizkion, gehien eskainitako erostuna zelako. Halaxe egin zuten alkateak eta probestuordeak.

Segidan genoarren prokuradore Duarte Pinelok Martin Ruiz Ertzillakoa alkateari auzi-gastuen txostena aurkeztu zion. Alkateak auzi-gastuen tasazioa egin zuen, eguneko 32 maraiko kostua ezarrita. Duarte Pinelok ez zuen prezio hura onartu eta Errege-kantzelaritzara jo zuen. Valladoliden Duartek auzi-gastuengatik 271 egun eta eguneko 60 marai kobratu behar zituela ebatzi zuten epai bidez. Azken apelazioko auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen. Bermeoko fidatzaileek bederatzi egun zituzten auzi-gastuak genoarrari ordaintzeko. Bestela ondasunak bahitu eta saldu egingo zizkieten. Ondasunik ezean, preso edukiko zituzten dena ordaindu arte (ikus [XVI. m. (01) 1] agiria).

Joan Lopez Narruondokoa lehen ere (1493an eta 1494an) auzitan ikusi genuen Pedro Baez Castil Blancokoa portugaldarrari harrapatu zion itsasontziagatik (ikus *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* lehen liburuko 19.3.3. eta 19.4.3. atalak eta [XV. m. 203], [XV. m. 209] eta [XV. m. 211] agiriak).

1.1.2. Debako elizetako apaizen eta Kontzejuaren arteko hitzarmena

1501-X-28an Debako parrokian bertako bikario eta apaizak eta Itziar, Arroa eta Garagartzako apaizak bildu ziren. Antso Gesalaga batxilerra zen bertako bikarioa. Apaizak, berriz, honako hauek: Domingo Arroa, Fortun Olauni, Iñigo Irarrazabal eta Martin Segura. Fernando Irarrazabal, San Joan Azoke eta Migel Arriaga apaizak herritik kanpo zebiltzan, baina bilera hartan ordezkaturata zeuden.

Apaizekin batera Debako Kontzejua bildu zen. Joan Perez Plazaolakoa zen alkate, Gartzia Martinez Idiakaizkoa probestu (Pero Martinez Idiakaizkoa probestu nagusiaren orde) eta San Joan Arriola eta Jofre Sasiola fiel. Beste hainbat herritar ere bildu zen Kontzejuan. Haietako bat Hernando Etorra zen, jatorriz zestoarra inola ere.

Apaizek eta Kontzejuak hitzarmena egin zuten aipatutako elizetan (Arroakoan ere bai, orduan Arroa Debako parte zelako) benefiziadu-karguren bat hutsik zegoenean apaiz berria nola izendatu arautzearen. Debako elizetako patronatua Kontzejuak zeukan errege-privilegioz lortuta. Debarrek eraiki zituzten elizak eta haiei zegokien hamarrenak jasotzea eta Iruñeko apezpikuari eliz lanetarako apaizak aurkeztea.

Hitzarmenean erabaki zuten, apezpikuari aurkezteko apaizak baldintza batzuk bete behar zituen: 1) Azken bi urteetan ohelagunik eduki gabea izan behar zuen; 2) Bost urteko ikasketak egindakoa izan behar zuen; 3) Hautagaiak herriko semea izan behar zuen, eta benefiziadu-postua hutsik geratu eta 30 eguneko epean egin behar zuen eskabidea; 4) Kontzejuak eta apaizek, elizan bilduta, botoa emanda izendatuko zuten hautagai onena; etab.

Hitzarmenean bikarioak eta apaizek egin beharreko lanak ere zehaztu zituzten. Debako parrokian matutiak, bezperak, gorespenak, etab. errezatu behar zituzten. Egunero meza eman behar zuten (kantatua, zegokionean). Meza nagusiak noiz eman behar zituzten, hiletak nola egingo zituzten eta beste zenbait arau hitzartu zuten. Arroako San Estebango eliztarrekin egina zuten kontratua ere bete egingo zuten. Hitzarmena Iruñeko apezpikutegian onar zezaten, Iñigo Casa eta Lope Arraioitz prokuradore izendatu zituzten.

Hitzarmen-agiria Joan Martinez Gilestegikoa eskribauak idatzi zuen, eta lekuko hauek izan ziren: Iñigo Ondiz eskribaua, Joan Garate gaztea, Joan Astola zilargina eta Joan Santxez Auntzolakoa (ikus [XVI. m. (01) 2] agiria).



1.2. irudia. Arroagoia. Eliza.

1.1.3. Martin Atristainen testamentua

1501-XI-21ean Aizarnazabalgo Saiazen, Atristain baserrian bizi zen Martin Atristainek testamentua egin zuen. Etxe atarian eserita zegoen, izurriteak kutsatuta, eta, besteak beste, agindu hauek eman zituen:

- Emazte eta senideekin batera Aizarnazabalgo elizako ate ondoko hilobian lurperatuko zuten.
- Hiletak, hirurrena, bederatziruena, urteurrenak, etab. ohi bezala egingo zizkioten; emazte zenari, Martin seme zenari eta honen Maria Joango emazteari ere elizkizunak egingo zizkioten.
- Aizarnazabalgo elizarako 40 txanpon, kanparako florin bat eta kriseilurako libra bat olio

eman zituen. Iroztegiko San Kristobal ermitan urtero 100 marai eta otarkada gaztaina emango zizkioten bertako serorari (edo serorei).

- Txomin semeari 10 kintal burdina emango zizkioten, Katalina arrebari 3.000 marai herentziagatik, Martin Enbili 14 florin eta 40 sos zuri, etab.

- Matxin seme umezurtza testamentu-betearazleek hazi eta zainduko zuten.

- Martin Enbili eta Iñigo Lopezen emazteari mintegien zatiak eta zuhaitzak emango zizkioten.

- Martin Atristainen zorrak ordaindu egingo ziztuzten, zorrak behar bezala frogatuta.

- Martin Atristaini zor zizkiotenak kobratu egingo ziztuzten, Joan Ausoroetxea "Agurek" zor zizkion 82,5 kintal burdina, adibidez, eta Joan Sarasolari 14 kintal burdina.

- Atristain baserrian hauek zeuzkan: 7 behi, zaldi bat, 9 ahuntz, 23 ardi, 7 txerri (2 Matxin semearenak), behi bat eta bi ardi ernari (Domenja alaba eta honen senar Domingorenak).

- Aizarnazabalgo Atristain baserria bere ondasun guztiekin Matxin semearentzat eta honen semealabentzat izango zen. Horiek ezean, Txomin semearentzat izango zen.

- Testamentu-betearazle Aizarnazabalgo Joan Etxabe, Martin Enbil eta Martin Intxaurregi izango ziren, eta ahalordea eman zien agindutakoa bete zezaten.

- Iñigo Eztiola Aizarnazabalgo erretore eta notario apostolikoak idatzi zuen testamentua. Lekuko hauek izan ziren: Joan Esnal, Joan semea, Pedro Arlaureta (oraingo Arlauta) eta suhi Lope Arlaureta, Domingo Arlaureta eta Joan Sarasola, denak ere Aizarnazabalgo parrokiakoak¹.

1.3. irudia.
Aizarnazabalgo
Atristain baserria.



1.1.4. Azpeitiko eta Zarauzko Batzar Nagusiak, eta beste zenbait gai

1501eko apirilean Gipuzkoako Batzar Nagusiak Azpeitian bildu ziren. Apirilaren 27ko bileran, adibidez, Gaztelako elizei dohaintzak, emakidak eta ondasunen eskualdatzeak egitea debekatu egin zuten; baita Frantziako erreinuko eta Nafarroako erreinuko elizgizon edo sekularrei ondasunak ematea ere. Laboreei buruzko ordenantza egin zuten.

Hurrengo Batzar Nagusiak 1501eko azaroan Zarautzen izan ziren. Hilaren 23ko bilkuran Leinzko bailarakoei 45 sukaldegatik ordaindu beharrekoa barkatu egin zieten lehen bost ordainaldirako, Naiarako dukeak ezartzen zien nekea arintzearren².

Badirudi 1501. urte inguruan Gipuzkoan ordenantza onartu zutela, kaparetasuna frogatu ezin zutena bertako auzotar izan ez zedin³.

1501. urtean Gipuzkoan Rodrigo Vela Nuñez Avilakoa zen korrejidore, eta haren korrejimenduan Migel Perez Idiakaizkoa eskribau zegoen (gure ustez Lilira ezkonduetako Joan Perez Idiakaizkoaren anaia). Dena dela, Migel Perez eskribauaren morroi Martin-go Lasao zen urte hartan⁴.

Zenbaitek dioenez, 1501. urtean Hernando Gebara Egiptora abiatu zen Milango Pedro Martir Angleriakoari laguntzera. Milandarra *Errege Katoliko* enbaxadore gisa joan zen Egiptoko sultanarekin hitz egitera⁵. Berez, ordea, Pedro Martir Angleriakoak 1502-I-8a eta 1502-VI-3 bitartean egin zuen bidaiaria Alexandriatik Alkairoraino joan eta etorri eginda⁶. Hernando Gebara baten ama Zestoako Altzolaras dorreko Maria Beltran Gebara zen (bertako Beltran Ibañezen arreba), eta aita Arrasateko Martin Bañez Artazubiagakoa. Hernando Beltran Gebara Bañez eta Altzolarasko dorretxeko jaun Hernando Gebara lehengusuak ziren, beraz, haren ama eta honen aita anai-arrebak zirelako. Azken bi hauek, berriz, “Mos” Gebararen seme-alaba ziren. Egipton sultanaren aurrean ibilitakoa eta Alkairoko Piramideak ikusitakoa, seguruenik, Zestoako Hernando Gebara izan zen, eta ez Gebara Bañez arrasatearra, azken honek 1525. urtean 14 eta 25 urte bitarteko adina baitzuen, anaia Otxoari 1525-IV-7an Valladoliden egindako obligazio-agiri batean adierazi zuenez. Egiptorako bidaiaria haren xehetasunak Arrasateko Esteban Garibai historialariak eman zituen⁷.

Gipuzkoan beste pertsonaia aipagarri bat Lazkaoko jauna zen, Bernaldino Lazkano. Fernando *Katoliko*ak 1501ean Baionako apezpikuari idatzi zion,

Bernaldinoren monasterio eta elizetan hamarrenak jaso ez zitzen².

1501.ean Sizilian Gonzalo Fernandez Kordobakoa (*Kapitain Handia*) gerran zebilen eta bertan soldadu euskaldunak zebiltzan haren agindupean. Ausartegiak omen ziren euskaldunak, eta ez omen zioten behar bezala obeditzen. Haietako batzuk *Kapitain Handiak* zigortu egin nahi omen zituen, baina ezin omen zituen menderatu. Euskaldunen agintari

izatea baino nahiago omen zuen lehoizain izatea⁸.

1501. urtean *Errege Katoliko*en alaba Joana Eroa eta senar Felipe *Ederra* Flandestik Gaztela aldera abiatu ziren lehorretik. Uztailean Joana alabaz erditu ondoren ekin zioten bidaiari⁹. Nafarroako Joan III.a Albretekoarekin egon ziren Akizen eta Baionan¹⁰.

Urte hartan, bestalde, Iruñeko katedralean musikaren arduradun Joanes Antxieta azpeitiarra zen¹¹.

1.2. 1502. URTEA

1.2.1. Zumaiako Kontzejuaren gastuak

Zestoako parte hamasei urtez izan ondoren, Aizarnazabal eta Oikia 1486. urteaz gero Zumaiako jurisdikzioan zeuden, baina bertako biztanleak ez zeuden eroso, Udaleko gastuetan gehiegi ordaintzen zutela iruditzen zitzaielako. Zumaiako Kontzejuak, berriz, gastuen zerrenda zehatza egiten zuen. 1502-II-14ko hau adibidetzat har daiteke.

Zumaiako San Pedro elizan Kontzejuko Joan Perez Etxezarretakoa eta Martin Diaz Mirubikoa alkateak, Joan Irure prokuradorea, Saiazko Joan Amilibia prokuradorea eta zenbait herritar bildu ziren. Ohi bezala martxoko Ama Birjinaren egunean (martxoaren 25ean) ordaintzeko gastu-banaketa egin zuten. Hauek dira gastuen zerrendako atal batzuk:

- Zarautzen aurreko urteko azaroan egindako Batzar Nagusietan Zumaiari 34 sukalderena (sukaldeko 64 marai) ordaintzea zegokion. Guztira 2.176 marai.
- Printzeari eta printzesari harrera egitera joandako 96 familiari 4.320 marai ordainduko zizkieten.
- Joan Irureri Batzarretara joan zelako, Azkoitian Joan Santxez Zumaiakoaren auzian egon zelako eta Zestoara mediku bila joan zelako, 500 marai emango zizkieten.

- Fernando Artzuriagari Narruondoko zubian 9 egunez egindako lanagatik, 325 marai.
- Fernando Artzuriagari Narruondoko zubian idiekin egindako lanagatik, 125 marai.
- Joan Irureri Narruondoko zubian egindako lanagatik, 150 marai.
- Narruondoko zubian ipinitako 128 beso zurengatik, 640 marai.
- Martin maisuari Basarteko Batzarretara korrejidorea hartzera joateagatik, 100 marai. (Basarteko Batzar Berezi hauen aipamenik ez dugu beste inon topatu).
- Matxin Alfonso, Peru Lizardi eta Oierri pikotako (urkamendiko) plazan egindako lanagatik (sei jorنال), 216 marai.
- Peru Leizardiri Azkoitia eta Zestoara joateagatik, 100 marai
- Gasteizko San Frantziskoko fraideentzat arrainetarako, 150 marai.
- San Joan Urangari, presari buruzko agindua Donostiatik ekartzeagatik, 160 marai.



1.4. irudia. Oikia Dornutegitik.

- Alkateei, 800 marai.
- Prokuradoreari, 400 marai.
- Eskribau fielari, 400 marai.
- Zinegotziari, 200 marai.
- Saiazko zinegotziari, 100 marai.
- Ibaiko pasaian ziharduen Maritxori, medikua eta zaldia bitan pasatzeagatik, 20 marai.

Gastuak guztira 13.734 maraikoak ziren. Saiazi (Aizarnazabal eta Oikiari) herena ordaintzea zegokion: 4.580 marai. Kopuru horri Narruondoko erroretatik Kontzejuak jasotzen zuenaren herena (400 marai) kendu egin behar zitzaion. Beraz, Saiazek 4.180 marai ordaindu behar zituen, eta hiribilduari 9.554 marai zegozkion. Hortik ardoagatik (185 marai) eta San Pedro elizako errentatik (3.180 marai) jasotakoa kenduta, hiribilduak 6.559 marai ordaindu behar zi-

tuen. Hiribilduan 490 milako zeudenez gero, milako bakoitzari 13,5 marai ordaintzea zegokion. Horrez gain medikuaren gastuagatik eta Oikiako zubiko gastuagatik ordaindu beharrekoa sartuta, milako bakoitzak 44,5 marai eman beharko zituen.

Kristobal Gartzia Azkuekoa eskribauak idatzi zuen agiria. Lekuko hauek izan ziren: Martin Diaz eta Joan Perez alkateak, Kristobal Lopez Zumaiakoa eta Joan Fernandez Izetakoa (ikus [XVI. m. (02) 1] agiria).

1.2.2. Gipuzkoako Batzarrak, printzeen bidaia, etab.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak 1502. urtean lehenbizi, zenbaiten iritiz, Tolosan bildu ziren urtarrilean. Hilaren 26ko bileran ordenantza argitaratu zuten Batzarretako lehendakariari buruz.

Gero Batzar Nagusiak Ordizian bildu ziren apirilean¹². Udazkeneko Batzar Nagusiak, berriz, Azkoitian bildu ziren azaroan. Hilaren 22ko bilku-

ran korrejidoreak eduki behar zituen merioordeen kopurua zehazteko ordenantza egin zuten. Rodrigo Vela Nuñez korrejidorea zen Batzarretako buru, eta hamar merioorde baino gehiago ezingo zituen eduki. Ordenantza hura errege-erreginek onetsi egin zuten Alcala-n hurrengo urteko otsailaren 28an egindako zedularen bidez².

Urte amaiera aldera, 1502-XII-6an, Zangozan Nafarroako Bianako printze Andres Febusek mesede egin zien gipuzkoarrei, agiria sinatuta Aragoi eta Gaztelako gari eta garagarrak Nafarroatik igarota ekartzeko baimena eman zielako¹³.

Bi urte lehenago Beltran Ibañez Oñazkoak (Loiolako jaunak) Azkoitiko Aitolako saroia saldu zuelako auzia zuen Azkoitiko zenbait auzotarrekin. Joan Otxoa Errekartekoa, Joan Arrandolatza (edo Ermandolatza), Joan Perez Aginagakoa, Joan Perez Ugartekoa, Fortun Untzeta eta Pedro Olano ziren auzitara jo zutenak. 1502an auzia apelazio bidez Valladolidko Errege-kantzelaritzara heldu zen².

1502. urtean Pedro Idiakaitz azkoitiarrak errege-erregingandik mesedea jaso zuen. Handik aurrera Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako burdinolako, Lilliko burdinolako (Debako partean zegoen), Iartza-

lako eta Beduako erreterriako “albala eta hamarren zaharra” izeneko zergetatik 45.000 marai jaso ahal izango zituen urtero bizialdi osoan¹⁴.

Flandestik Toledorako bidaia luzean *Errege Katoliko*en alaba Joana *Eroa* eta Felipe *Ederra* printzeak 1502-I-26an Hondarribira iritsi ziren¹⁵. Tolosara urtarrilaren 30ean iritsi ziren, eta otsailaren 6an Segurara⁹. Gipuzkoatik igaro zirenean, printzea eta printzesa Bernaldino Lazkanoren (Lazkaoko jaunaren) seme Feliperen aitaponteko izan ziren². Printzearen ohorez ipini zioten Felipe izena jaioberriari. Gero San Adriandik aurrera joanda Gipuzkoa utzi egin zuten⁸. Burgosera heldu zirenean Felipe printzeak lehen aldiz ikusi zuen zezenketa⁹.

1502. urtean Joana *Eroa* printzesaren ahizpa Katalina, Ingalaterrako Arturo erregearen emaztea, alargundu egin zen. Gero Arturo erregearen anaia Enrike VIII.a erregearekin ezkondu zen⁹.

1502. urtean bertan, Gaztelako erreinuko mudejarrak (kristau-lurraldean bizi ziren musulmanak) behartu egin zituzten kristau bihurtzera edo erreinua uztera¹⁶. Otsailaren 14an eman zuten agindua, beren intolerantziatzko bideari jarraipena emanaz, *Errege Katolikoek*.

1.5. irudia. Azkoitiko Aitolazar baserria.



1.3. 1503. URTEA

1.3.1. Fernando Orexa getariarraren testamentua

1503-I-2an Fernando Orexa getariarrak, gaixo eta ohean zegoelarik, testamentua egin zuen. Maria Perez Untzetakoa emaztea alargundu ondoren Zestoara ezkondu zelako eta auzi baten oinarri izan zelako dakargu hona. Fernando Orexak Getariako elizan hobiratzea nahi zuen, Santxa Fernandez Etxeberrikoa amaren ondoan. Hiletak, urtebetetzeak, mezak, etab. Getarian ohi bezala egingo zizkioten. Beste agindu hauek ere eman zituen Fernando Orexak:

- Musulmanen gatibu zeuden kristauak askatzeko urrezko florin bat eman zuen.
- Beste florin bat utzi zion Hondarribiko Guadalupeko Ama Birjinari.
- Getariako elizako lanetarako urrezko dukat bat eman zuen.
- Getariako San Sebastian eta San Lazaroren baselizarako eta ospitaletarako zilarrezko bina erreal eman zituen.
- Getariako behartsuentzat bi upel sagardo utzi zituen.

Ondoren, Fernando Orexak kobratzeko zituen diruak zehaztu zituen, testamentu-betearazleek jaso zituzaten:

- Joan Martinez Amilibikoa koinatuak (Joan Ortiz Untzetakoaren semeak) urrezko 100 dukat zor zizkion.
- Joan Martinez Amilibikoak 1.696 marai kobratu behar zizkion Pedro Armintza ontzi-maisuari, infantarekin Ingalaterrara joan zirenean irabazi zuen jorjala zor ziolako. (1501-VIII-17an A Coruñatik *Errege Katoliko*en alaba Katalina itsasoz Ingalaterrara eramateko espedizioan parte hartuko zuen Fernando getariarrak. Enrike

VII.a erregearen Arturo semearekin, Galesko printzearekin, ezkondu zen infanta 1501-XI-14an Londresen).

- Beste hauek ere zordun zituen Fernando Orexak: Hondarribiko Nikolas Montat (28 dukat), Migel Antsorregi debarraren Antona emaztea (8 dukat), Debako Joan Perez Gorostiagakoaren Anton morroia (9na maraiko 12 tarja), Domingo Mirubia (2 dukat), Joan Arrona ontzi-maisuaren Domenja alaba zumaiarra (dukat bat), Hondarribiko Pedro Santxex Albiagakoa (urrezko dobla bat, Sevillatik etxerako bidean maileguz emana), Hondarribiko Patxitxin (urrezko utrek bat), Joangotxo zumaiarra (zilarrezko 20 erreal), Zumaiako Domingo Arbe pilotua (dukat bat), Beltran Orexa anaia (34 dukat, Cadizen Joan Aia eskribauaren aurrean emanak), Maria Martin eta Estibaritz Elorriaga (16 dukat).

Fernando Orexak berak ere zorrak bazituen, eta hauek ordain zitzatela agindu zuen:

- Orioko Martin Igola ontzi-maisuak emaztearentzat 115 dukat eta Gaztelako 27 txanpon eman zizkion, baina falta zen txanpona (bat) nola ordaindu zehaztu zuen Fernandok.
- Maria Joan Amilibikoa amaginarrebari 87 florin zor zizkion.
- San Prudentzioko Maria Joan Arteaga mojari urrezko lau dukat.
- Fortun Untzeta koinatuari, sei dukat emango zizkioten apaiz-ikasketak egin zitzan.
- Bartolome Arretxe ilobak meza berria ematen zuenean urrezko dobla emango zion Fernandoren emazte Maria Perez Untzetakoak.
- Joan Arrona medikuari Fernando sendatzen egindako lana ordainduko zioten.

- Maria Oresa, Gartzia Olatzegi, Domenja Untzeta, Lorentza Iraeta, Katalina Lazkano, Migel "Txipiaren" emazte Maria Migel eta Maria Beltran Iraetari 500na marai emango zizkieten azpiko gonak egin zitzen.

- Arreba Maria Migel Oresari ama zenaren herentziako 10 florin ordainduko zizkieten.

- Joan Oribar getariarrak Genoatik kutxa ekarri behar zion Fernando Oresari. Hango arropa eta armak (eta erre berria zen bere etxetik ateratako guztiak) Mari Migel arrebaren seme Joanitorentzat izango ziren.

- Genoako kutxako zenbait gai Maria Perez Untzetakoa emaztearentzat izango ziren.

- Joan Oribarrek ekarriko zuen ozpina Joan Ortiz Untzetakoa aitagarrebarentzat izango zen; baita altzairuzko balezta-gurutze bat, 300 amu txiki, etab. ere.

- Andaluzian Joan "Zuri" arrantzalearen Joan Sarasola suhiak 4 dukat utzi zizkion Maria Saria emaztearentzat, baina emazteari oihal, gari eta argizari-tan ordainduko zitzaion.

- Emazte Maria Perez Untzetakoari 28 dukat emango zizkieten. 1498-V-28ko ezkontza-kontratuan, Paskual Migelez Arretzekoa eskribauak idatzitakoan, agertutako dotea, emaztearena, osorik jasoa zuen Fernando Oresak: 260 kintal burdina, urrezko eta zilarrezko bitxiak, arreoak, arropak, etab.

Ondoren, Fernando Oresak bere etxe, lur, sagasti, mendi eta ondasun guztien oinordeko unibertsal Beltran Oresa anaia pilotua izendatu zuen. Beltran Oresa Getariara ezkontzen ez bazen, edo legezko seme-alabarik gabe hiltzen bazen, edo seme-alabak testamentua egiteko adina baino lehen hiltzen baziren, Joanito iloba (Maria Migel arrebaren semea) izango zen oinordeko. Joanito ere seme-alabarik gabe hiltzen bazen, Maria Migel Oresa izango zen oinordeko.



1.6. irudia. Getariako San Anton San Prudentziotik.

Testamentu-betearazleak Beltran Orexa, Joan Perez Amilibikoa, Joan Ortiz Untzetakoa, Maria Joan Amilibia, Maria Migel Orexa eta Maria Perez Untzetakoa getariarrak izango ziren; baita Iñigo Ruiz Etxeberrikoa zestoarra ere.

Sebastian Zabalaga eskribauak idatzi zuen testamentua, lekuko honako hauek izanik: Joan Arrona ontzi-maisua, Joan Domingez Mirubikoa, Joan Simon Estella eta Joan Martinez Mantelolakoa (edo Mantelolakoa) jostuna, denak ere getariarrak.

Hurrengo egunean, 1503-I-3an, Fernando Orexak kodiziloa erantsi zion testamentuari. Emazte Maria Perez Untzetakoa haurdun bazegoen eta haurra izaten bazuen, hura izango zen oinordeko unibertsal, baina haurrik ez bazuen edo haurra adinez nagusi izan baino lehen hiltzen bazen, Beltran Orexa, Joanito iloba edo Maria Migel Orexa, hurrenez hurren, izango ziren oinordeko (ikus [XVI. m. (03) 1] agiria).

1.3.2. Zumaiako Kontzejuaren gastu-banaketa

Zumaiako Kontzejuak gastuen zerrenda zehatza egin zuen, Aizarnazabal eta Oikiako biztanleek gehiegi ordaintzen zutelako. 1503. urteko martxokoa da ondoren azaltzen dugun zerrenda.

Zumaiako Kontzejuan Jofre Sasiola eta Martin Narruondo ziren alkate, Anton Garate zinegotzi eta prokuradore, eta Joan Mirubia errementaria Saiazko prokuradore. Pedro Martinez Mantzizidorkoa, Fernando Otsango, Andres Perez Indanetakoa, Migel Aia eta beste zenbait auzotar bildu ziren. Ohi bezala martxoko Ama Birjinaren egunean ordaintzeko gastu-banaketa egin zuten. Hauek dira gastuen zerrendako atal batzuk:

- Probintziako gastuetarako 34 sukalderena, hau da, 2.435 marai ordainduko zituzten.
- Iñigo Ibañez Dorrekoari eta Martin maisuari Bidanira joan zirelako, 300 marai.

- Martin maisuari Azkoitiko Batzarretara joan zelako, 650 marai.
- Martin maisuari Usarragara joan zelako, 150 marai.
- Joan Olazabali Bidanira joan zelako, 250 marai.
- San Joan Urangari Usarragako Batzarretan lau egunez egon zelako, 200 marai.
- Eskribau fieleri, 400 marai.
- Martin maisuari Salzedoren pisu eta neurriengatik, 150 marai.
- Gari-neurri berria ekartzeagatik, 150 marai.
- Ordiziatik suaroaren (suteen aurka babesteko elkartearen) ordainagiria ekartzeagatik, 18 marai.
- Kontzejuaren liburu bateagatik, 100 marai.
- Joan Irureri Narruondoko zubian 24 anega kare utzi zituelako, 200 marai.
- Joan Irureri zubiko gastuengatik, 250 marai.
- Alfontso harginari Odietako iturriko harriengatik, 50 marai.
- Martin Ruizi Zestoan burdinekin izandako gale-rengatik, 150 marai.
- Alkateei, 800 marai.
- Prokuradoreari, 400 marai.
- Saiazko zinegotziari, 100 marai.
- Batxilerrari, 400 marai.
- Peru Leizardiri, 30 marai.
- Zinegotzi txikiari, 200 marai.



1.7. irudia. Aizarnazabalgo Zubialde.

Gastuak guztira 18.039 maraikoak ziren. Herena, hau da, 6.013 marai, Saiazek (Aizarnazabal eta Oikiak) ordaindu behar zuten.

Hortik at, Zumaiako hiribilduak bakarrik ordaintzeko beste gastu batzuk egin ziren. Diru-sarrerak ere izan zituen hiribilduak, San Pedro elizatik, adibidez. Hiribilduko jendeak azkenean, 8.280 marai ordaindu behar zituen.

Hiribilduan 500 milako zeudenez gero, 16,5 marai ordaintzea zegokion milako bakoitzari.

Kristobal Gartzia Azkuekoa eskribauak idatzi zuen gastuen zerrenda. Kopia bat Saiazko prokuradore Joan Domingo Areitzagarentzat atera zuen, korreji-

dorearen aginduz (ikus [XVI. m. (03) 2] agiria). Aizarnazabal eta Oikia, nonbait, berriz ere Zumaiarekin auzitan hastekoak ziren.

Bestalde, Bidaniko Usarragan Batzar Bereziak egin ziren, zerrendako gastuek garbi adierazten dutenez. 1502ko martxoaren eta 1503ko martxoaren artean ospatu ziren, nahiz eta horien aipamenik beste inon topatu ez dugun.

1.3.3. Katalina Martzana Martin Diaz Mirubikoaren aurka

1503-VII-20an Valladolidtik *Errege Katolikoek* gutun betearazlea bidali zieten Zumaia eta Zestoako agintariei eta haien erreinuetako gainerakoei. Katalina

Martzanak, Joan Martinez Dorrekoaren alargunak, auzia zuen Martin Diaz Mirubikoa eskribauarekin. Zumaiaiko Katalina Martzana (gure ustez Beduako Martin Santxez Martzanakoa jaunaren alaba) Ana eta Isabel ume txikien ama eta tutore zen.

Auzia lehenbizi Gipuzkoako korrejidore Rodrigo Vela Nuñezen esku egon zen. Katalina Martzanak Martin Diazi ahalordea eman zion 80 kintal burdinaraino haren izenean jaso zituzan, baina Martin Diazek 56 kintal kobratu eta beretzat gorde omen zituen. Beraz, Katalina Martzanak korrejidoreari Martin Diaz kondena zezala eskatu zion.

Martin Diazek zioenez, Katalinaren izenean hark ez zituen burdinak kobratu. Katalinak auziak omen zituen Iñigo Ibañez Dorrekoarekin, Jordana Ruiz Sasiolakoa amaginarrebarekin eta Joan Fernandez Dornutegikoarekin. Haurren ondasunak xahutzen ari omen zen, eta alaben tutoretza kentzea komeni omen zen. Martin Diaz, gainera, Katalinaren fidatzaile zen tutoretzan, eta beldur omen zen.

Katalina Martzanak aurka egin zion Mirubikoak azaldutakoari, ondasunak ongi kudeatzen zituelako. Ondorioz, korrejidoreak bi aldeei epea eman zien beren froga eta testigantzak aurkez zituzaten. Halaxe egin zuten bi aldeek, eta Rodrigo Vela Nuñez lizentziatuak epaia eman zuen. Katalina Martzanari arrazoi eman zion, eta Martin Diaz kondenatu egin zuen Katalinari Joan Perez Areitzagakoarengandik jaso zituen 56 kintal burdina ematera. Gainera auzi-gastuak ere ordainduko zizkion Katalinari.

Martin Diaz Mirubikoak gora jo zuen epaiaren aurka Errege-kantzelaritzara. Katalina Martzanaren prokuradoreak zioenez, Martin Diazek ez zuen apelazioa legezko epean aurkeztu, eta auziari jarraipenik ere ez zion ematen. Beraz, epaileei korrejidoreak emandako epaia ontzat jo zezatela eskatu zien.

Martin Diaz auzira aurkeztu ez zelako, epaileek kondenatu egin zuten korrejidorearen epaia betetzera eta auzi-gastuak (1.495 marai) Katalina Martzanari

ordaintzera. Martin Diazek bederatzi egun zituen Katalinari zorra ordaintzeko. Bestela ondasunak bahitu eta saldu egingo zizkioten. Ondasunik ezean, preso edukiko zuten zor osoa ordaindu arte (ikus [XVI. m. (03) 3] agiria).

1.3.4. Joan Perez Idiakaizkoa eta Artaunsaroe eta Barrensaroe

1503-IX-29an, Zestoako hiribilduko Kontzeju-etxean, Pedro Gebara alkatea, Jakobo Ipintza fiela, Martin Aspe probestuordea (Joan Beltran IV.a Iraetaren izenean) eta auzotar asko bildu ziren. Bertaratutako auzotar batzuk hauek ziren: Joan Perez Idiakaizkoa (Liliko jauna), Iñigo Ruiz Etxeberrikoa, Martin Otxoa Artazubiagakoa, Pedro Arretxe, Joan Zelaia, Martin Gartzia Lasakoa, Domingo Lizarrarats, Esteban Artazubiaga, Joan Mateo Arretxe, Domingo Zabala, Domingo Etxeberria, Fernando Arreitza hauspagina, Martin Otxoa Gorosarikoa, Sebastian Artazubiaga, Joan Perez Arretzekoa, Joan Apategi, Martin Perez Kortazarkoa, Joan Erretzabal, Joan Oribia zapataria, Paskual Txiriboga...

Kontzejukoek ziotenez, Zestoako lurretan (Bedamako burdinolaren ondoan) Artaunsaroe eta Barrensaroe izeneko saroi eta lurrak Joan Perez Idiakaizkoari saldu zizkioten 16 edo 17 urte lehenago (1486an edo 1487an). Bi saroi horien mugak hauek ziren: Errezil aldetik Gallekuetik zetorren erreka (orain Iturrierrotareka), beste aldetik Aiako herri-lurrak, beheko aldetik Bedamako burdinolara jaisten zen erreka, eta goiko aldetik Lope Martinez Zarauzkoa getariarraren lurrak.

Zestoako Kontzejuak Joan Perezi egin zion salmentan baldintza ipini zuten, Lope Martinez Zarauzkoarekin izandako auziko behin betiko epaia errespetatu zedin (ikus aurreko *I ZESTOA MENDEAN ZEHAR* liburuan 1486. urteari dagozkion 17.3. eta 17.4. atalak). Bedamako burdinolaren etxe nagusia, hain zuzen, saroiaren barruan zegoen.

Aipatutako saroietan Joan Perez Idiakaizkoak haritzak, gaztainak eta beste zenbait motatako zuhaitzak landatu zituen. Landare haietako batzuk moztu eta



1.8. irudia. Bedamako Barrenaroe (oraingo Barrenaroe).

atera egin zizkion norbaitek, eta Joan Perezen ustetan, Getariako Joan Lopez Zarauzkoak edo haren agindupeko beste batzuek egin zuten kaltea. Saroien salerosketa-kontratuak zioenez, Zestoako Kontzejua behartuta zegoen horrelako egoeran Joan Perezi (Liliko jaunari) laguntzera. Ondorioz, Zestoako Kontzejuk Jakobo Ipintza fiela eta Joan Perez Idiakaizkoa prokuradore izendatu zituen. Behar besteko ahalordea eman zieten horretarako eta gaizkileak auzitara eramateko.

Zestoako Joan Martinez Zabalakoa eskribauak idatzi zuen ahalorde-agiria, eta lekuko honako hauek izan ziren: Joan Fernandez Olazabalgoa, Paskual Txiriboga eta Joan Oribia. (ikus [XVI. m. (03) 4] agiria).

Aipatu beharra dago 1497. urtean Kontzeju-etxea Aizarnan eraikitzen hasi zirela eta auzian han eraikitzearen aurkako epaia izan zuela (ikus *IZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko 20.2.5. atala eta [XV. m. 237] agiria). 1503. urtean, ordea, Kontzeju-etxea Zestoako hiribilduan, harresi barruan, zegoela dio agiri honek.

Bestalde, gaur egun Artaunsaroe (Arteunsoro) eta Barrenaroe (Barrenaroe) Errezilgo parte dira. 1503. urtean, ordea, bi saroi horiek Zestoako jurisdikzioan zeudela esaten da.

1.3.5. Gipuzkoako Batzar Nagusiak Hondarribian, eta beste zenbait gai

1503an Gipuzkoako Batzar Nagusiak Hondarribian bildu ziren azaroan. Tolosako hiribildua erre egin zelako, hamar urterako 80 sukaldegatik ordaintzea zegokiona barkatu egin zioten¹³. Agiria Anton Gonzalez Andiakoak idatzi zuen, azaroaren 22an, Rodrigo Vela Nuñez korrejidorearen aurrean. Lekuko Joan Perez Untzakoa, Joan Nuñez eta Hondarribiko alkate Joan Santxex Benesakoa izan ziren².

Gipuzkoako korrejimendua 1503-I-31n Azpeitian zegoen, eta bertan Migel Perez Idiakaizkoa errege-ganberakoa zegoen eskribau, Martin Perez Idiakaizkoa eskribau nagusiaren orde. Martin Martinez Lasakoa prokuradore-lanetan zebilen, eta Joan Martinez Lasakoa Azpeitiko auzotarra zen orduan⁴.

1503-I-2an *Errege Katolikoek* Madrildik agindua bidali zuten denek ogia arrazoizko prezioan sal zezaten. Gero Gipuzkoaren izenean Iñigo Ruiz Etxeberrikoa zestoarra eta Joan Martinez Legazpikoa Arabako Mendozara joan ziren agindua bete zedin¹⁷.

1503. urtean argitaratutako pragmatika baten bidez eskribauak behartu egin zituzten agiriak liburuan jasotzera. Ordura arte eskritura guztien protokoloak eskribau askok idazten zituzten, baina gehienetan agirien oinarrizko datuak baino ez zituzten jasotzen erregistroan¹⁸.

Aurreko *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko 20.5.4. atalean genionez, Migel Lopez Lepazpikoa konkistatzailea 1500-1505. urte bitartean jaio zen Zumarragan. Zenbaiten iritziz, ordea, 1503an jaio zen¹⁹.

Bestalde, 1503. urtean iritsi ziren frantziskotarrak Debako Sasiolako komentura²⁰.

Sevillan, berriz, *Errege Katolikoek* Indietako Kontratazio Etxea (“Casa de Contratación de Indias”) sortu zuten, Ameriketako kolonien eta metropoliaren arteko merkataritza kontrolatzeko. Merkataritza-auzitegi moduan ere lan egin zuen etxe hark²¹. Esan beharra dago urte hartan *Errege Katolikoak* Frantziako Luis XII.aren aurka gerran zebiltzala Napoliko erreinua zela medio. Napoli konkistatzen zebilen Gonzalo Fernandez Kordobakoa *Kapitain Handia* bere tropekin⁹.

Urte berean Erroman, abuztuaren 18an, Alexandro VI.a aita santua hil egin zen. Irailaren 22an hautatu zuten ondorengoa, hau da, Pio III.a, aita santu⁸.

1.4. 1504. URTEA

1.4.1. Capuako gobernadore zumaiarra

- 1504-II-27an Getariako Domingo Otxoa Portukoa eskribaua Capuako hirian zen (Napolitik iparraldera 26 kilometrora) bertako agintari Antonio Archepelago eta Adame Adan jaunekin. Alonso del Peso eta Pedro “Beltza” aguazila aurkeztu ziren hilberria zen Pedro Diaz Zumaiakoaren (Capuako gobernadore eta lizentziatuaren) testamentu-betearazle gisa.

Testamentu-betearazleek eta eskribauak lehenbizi gobernadorearen hiletetan egindako gastuak zerrendatu zituzten; hango eliza eta komentuei emandako limosnak ere bai. Guztira 32 dukat, 2 karlin (Napoliko Karlos I.a Anjoukoak ateratako txanpona) eta 12 tornes (Toursko txanpona) gastatu zituzten.

- 1504-III-8an, Capuan, Angelo Antonio Archepelago eta Adame Adan agintariak, Domingo Otxoa Portukoa eskribaua eta gobernadore zenaren Alonso del Peso eta Pedro “Beltza” testamentu-betearazleak bildu ziren. Gonzalo Fernandez Kordobakoa *Kapitain Handiak* Pedro Diaz Zumaiakoa Capuako gobernadore 1503-IX-29an izendatu zuen gerran ari zirela, eta 1504-II-26an hil zen. Beraz, 5 hilabete eta 5 egun egin

zituen karguan. Pedro Diaz lizentziatuari 129 dukat arrunt (1 dukat = 10 karlin) zegozkion sari gisa, baina 150 kobraturik zituen. Beraz, 21 dukat itzuli egin behar zizkioten hiriari.

Gobernadore zenak egindako beste zenbait zor ere zerrendatu zituzten. Capuako hiriari egindako zorra, guztira, 33 dukat arruntekoa zen.

Egun berean testamentu-betearazleek hainbat ordainketa egin zuten: Jacobo maisu eta aitorleari, San Agustinen ordenako Maria Madalena monasterioko fraideei (gobernadora monasterio horretan hilobiratu zuten), Santa Katalinako monasterioari (Brezako hiribilduan hildako baten aginduz), lizentziatuak osatu zuen etxeko Bernaldinori, Kristobal Unano dendariari eta abarri. Guztira 122 dukat, 8 karlin eta 2 tornes.

- 1504-III-17an, Napolin, Luis Martinen etxean Domingo Otxoa Portukoa eskribaua Capuako gobernadore zenaren morroiekin eta Joan Mondragonekin bildu zen. Pedro Diaz Zumaiakoa lizentziatu zenak morroi hauek zituen bere ondoan: Joan Akoa (zes-toarra inola ere), Joan Epelola (Oikiako Epeolakoa),



1.9. irudia. Zumaiaiko San Telmo ermita.

Periko Zumaia (gobernadorearen iloba) eta Domingo Eizagirre. Haiek egindako gastuen zerrenda osatu zuten: bi gurditan Capuatik Napolira lizentziatuaren arropak ekartzeagatik, bideko gastuengatik eta abarregatik 18 dukat, 7 karlin eta 7 tornes ordaindu zituzten guztira.

- 1504-III-18an, Napolin, San Joan Olloki pilotuari urrezko lau dukat eman zizkieten, Diego Larrañagarekin pilotu-lanaz zuen auzian Taranton zorra egin ziotelako. Domingo Otxoa eskribau getariarrari 12 dukat ordaindu zizkieten. Beste zenbait ordainketa ere egin zuten.

- Egun eta hiri berean, Pedro Diaz Zumaiakoak zituen ondasunen inbentarioa egin zuten testamentu-betearazleek. *Kapitain Handiaren* aginduz ere egin zuten. Arropa, izara, ontzi, etab. zehatz-mehatz zerrendatu zituzten. 72 dukat arrunt balio zuten. *Kapitain Handiaren* Fernando Baeza idazkariak zilarrezko ontziak erosi zituen 92 dukat arrunt eta 7 karlinean (libra zilarra = 83 karlin). Beste 11 libra eta 2 ontza zilar ere saldu zituzten.

- 1504-III-25ean, Napolin, Pedro “Beltzak” ogi, ardo eta arrainetan gastaturikoa eta Joan Epelolak egindako gastuak ordaindu zituzten.

- 1504-III-27an, Napolin, testamentu-betearazleek Pedro Melendiz, Luis Martin eta Diego Larrañagari 30 dukat, 4 karlin eta 10 tornes ordaindu zizkieten; Diego Matari eta Paulo Tolosari, berriz, 8 dukat.

- 1504-IV-1ean, Napolin, testamentu-betearazleek Diego Larrañagari Capuako gobernadore zenaren ondasunetatik hainbat arropa eta ontzi eman zioten; baita zilarrezko piezak ere. Guztira 116 dukat, 5 karlin eta 40 tornes.

Egun berean Alonso del Pesok eta Pedro “Beltzak” beste zenbait arropa, oinetako, etab. saldu zituzten: 7 dukat, 3 karlin eta 10 tornes guztira.

- 1504-IV-18an, Napolin, testamentu-betearazleek Joan Cozeciari, Domingo Otxoa eskribauari eta abarri ordaindutakoa idatarazi zuten: 4 dukat eta 8 karlin.

- 1505-IV-23an, ordura arte egindako beste gastuak 2 dukat eta 12 torneseakoak izan ziren.

Egun eta leku berean, Alonso del Pesok eta Pedro “Beltzak” beren lanagatik zegokien saria kobratu zuten, biak ere ados jarrita. Alonso del Pesok Elena Diaz Zumaiaikoarentzat (Pedro Diaz gobernadore zenaren oinordeko unibertsalarentzat) eskriturak, urrezko eraztunak eta beste zenbait gauza gorde zituen.

Batez beste zorretan 207 dukat, karlin bat eta 3 tornes zeuden, eta hori ordaintzeko 211 dukat eman zizkieten Diego Larrañagari. Pedro Diaz lizentziatu zenak Diego Larrañagari emanak zizkion urrezko 25 koroa. Kontu horien guztien berri emango zioten Elena Diaz oinordekoari eta Elenaren oinordekoei.

Domingo Otxoa Portukoa eskribau getariarrak egindako agirian lekuko izan ziren Luis Martin (Napoliko merkataria), Joan Beltran Arteaga, Periko Zumaia (governadore zenaren iloba) eta Bizenko Seboia.

- 1504-V-1ean, Napolin, Cola Antonio liburu-maisuak jasotako eta gobernadore zenarenak izandako li-

buruen berri eman zuen Domingo Otxoa eskribauak. 67 dukat balio zuten (ikus [XVI. m. (04) 1] agiria).

1.4.2. Zumaiaiko Kontzejuaren gastuak

Zumaiaiko Kontzejuak auzotar guztiek 1504ko abuztuko Ama Birjinaren egunean (abuztuaren 15ean) ordaindu beharreko gastuen zerrenda zehatza egin zuen. Besteak beste, Aizarnazabal eta Oikiakoek ordaindu beharrekoa zorrotz justifikatu behar zuten, Saiazko jendea Zumaian 1486an auzia galtzearen ondorioz zegoelako. 1504ko uztailekoa da ondoko zerrenda.

Kontzejuan, besteak beste, honako hauek bildu ziren: Pero Fernandez Indanetakoa eta Beltran Arteaga alkateak, San Joan Uranga sindiko prokuradorea, Migel Aia zinegotzi txikia, Joan Narbazta Saiazko zinegotzia, Andres Perez Indanetakoa, Joan Perez Etxezarretakoa, Martin Diaz Mirubikoa, Martin Narruondo eta beste zenbait.

Hauek dira gastuen zerrendako atal batzuk:

- Zumaia eta Saiazek 34 sukalderena probintziari ordaintzeko, 2.297 marai.



1.10. irudia.
Aizarnazabalgo Saiazko
San Kristobal Iroztegikoa
ermita.

- Martin Narruondo maisuari Bergarako Batzar Nagusietara joan zelako, 650 marai.
- Martin Narruondori, Martin Santxez Karkizanoari ordaindutakoagatik, 540 marai.
- Txomin Gorostiagari, 30 marai.
- Antso zapatariari, 15 marai.
- Zubeltzuri Donostiara gari bila joan zelako, 100 marai.
- San Joan Urangari Mutrikura eta Hernanira joan zelako, 600 marai.
- Areitzagari eta Barrundiari sakristautzagatik, 500 marai.
- Txuria Nekoitzi Elgoibarra joan zelako, 36 marai.
- Narruondoko harriengatik urrezko lau dukat, hau da, 1.620 marai.
- Errotetako harriak ezartzeagatik, 200 marai.
- Bi alkateei, 800 marai.
- San Joan Uranga prokuradoreari, 400 marai.
- Kristobal Azkue eskribau fielari, 400 marai.
- Saiazko prokuradoreari, 100 marai.
- Sasiola batxilerrari, dukat bat, hau da, 400 marai.
- Anton Garateri Odietako iturriko lanagatik, 50 marai.

Ordaindu beharrekoak 12.402 marai ziren guztira. Saiazek herena (4.135 marai) ordaindu behar zuen, eta hiribilduak gainerakoa (8.268 marai). Hiribilduak ordaindu beharrekoari zenbait diru-sarreragatik jasotakoa (3.802 marai) kenduta eta beste galeraren bat erantsita (45 marai), azkenean 4.511 marai ordaindu beharko zituen.

Hiribilduak gastuak banatzeko 496 milako zituen. Beraz, milako bakoitzari 9 marai eta bederatzi hamarren ordaintzea zegokion.

Kristobal Gartzia Azkuekoa eskribauak idatzi zuen gastuen agiria (ikus [XVI. m. (04) 2] agiria).

1.4.3. Bekolako Pedro Lopez eta Maria Perez Untzetakoaren ezkontza-kontratua

I ZESTOA MENDETAN ZEHAR liburuan ez genituen jaso Bekolari buruzko XV. mendeko zenbait albiste, baina interesgarria da bertako aipamen batzuk egitea:

- 1458-III-20an, Bekolan, Martin Ibañez Garratzakoa eskribauak agiri bat idatzi zuen. Bekolako Joan Lopez Altzolaraskoak eta Maria Ibañez emazteak aitortu zuten, haien seme Joango Altzolaratsek gurasoen zenbait zor bere gain hartu zituen. Horregatik gurasoek konpromisoa hartu zuten orduan han zeuden Grazia, Perutxo eta Ingelesa seme-alabei herentziagatik zegozkien ondasun guztiak Joango anaia-ri emanarazteko. Joangoren ezkontza-kontratuan zehaztu ziren ondasun haiek. Altzolarasko haritzak ere Joangorentzat izango ziren. Haritzak etxea eta burdinola konpontzeko baino ez zituzten erabiliko.

Agirian lekuko Joan Martinez Ibañetakoa (Zestoako bikarioa), Matxiko Areitzaga eta Lope Areitzaga mazolariak eta Martin Arteaga zumaiarra izan ziren.

Egun eta leku berean, Martin Ibañez Garratzakoa eskribauak egindako beste agiri batean Joango Altzolaratsek bere burua behartu egin zuen aita Joan Lopez Altzolaraskoari ehun kintal burdina ematera. Beduan emango zizkion 1465. urteko martxoko Andre Mariaren egunerako 50 kintal, eta handik urtebetera beste 50 kintal. Agirian lekuko hauek izan ziren: Joan Martinez Ibañetakoa (Zestoako bikarioa), Martin Arteaga zumaiarra eta Lope Zabala zestoarra.

Egun eta leku berean Martin Ibañez Garratzakoa eskribauak hirugarren agiria ere idatzi zuen. Joango Altzolaratsek (Joan Lopez Altzolaraskoaren semeak)

konpromisoa hartu zuen Otxoa Altzolarats anaiari ehun kintal burdina emateko; izan ere, Otxoak Bekolatik jaso beharreko senipartea Joangoren esku utzi baitzuen. Belduan 1463. urteko martxoko Andre Mariaren egunean 50 kintal emango zizkion, eta handik urtebetera gainerrako 50 kintalak. Lekuko hauek izan ziren: Joan Martinez Ibañetakoa bikarioa, Matxiko eta Lope Areitzaga mazolariak eta Martin Arteaga zumaiarra.

- 1465-X-24an, Zestoako elizan, Joan Lopez Amilibikoa eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Pedro Altzolarats zen senarra (Bekolako Joan Lopez Altzolaraskoaren semea), eta emaztea Maria Martin (Martin "Luze" Landerrainen eta Milia emaztearen alaba). Maria Martini gurasoek Zestoako hiribilduan zuten etxea eman zioten, bere lur, sagasti eta guzti. Lizarrak eta landare-mintegiak ere banatu eta arautu zituzten.


Joan Lopez Altzolaraskoak Martin "Luze"ri urrezko 80 florin agindu zizkion Pedro semearen dote gisa, epeka ordaintzekotan. Joan Lopezen fidatzaileak Joango Altzolarats semea eta Otxoa Artazubiaga hauspagina izan ziren. Martin "Luze"ren fidatzaileak, berriz, Fernando Ruiz Etxeberrikoa, Fernando Larretxe eta Joan Arretxe sastrea. Ezkontza seme-alabarik izan gabe hausten baldin bazen, ondasun bakoitza bere jatorrizko enborrera itzuliko zen. Lekuko honako

hauek izan ziren: Gontzalo Arbestain, Joan Martinez Ibañetakoa eta Lope Iraeta apaizak, Martin Diaz Lilikoa, Martin Gartzia Lasakoa eta Pedro Artazubiaga zestoarrak.

Egun eta leku berean Martin "Luze"ren Teresa alabak seniparteagatik zegozkion ondasunak Maria Martin ahizpari eman zizkion. Pedro Altzolaratsek ere Bekolan zegokion herentzia Joango anaiari eman zion.

- 1466-II-8an, Izarain etxearen aurrean, Joan Lopez Amilibikoa eskribauaren aurrean Bekolako Otxoa Altzolarats eta Joango Altzolarats anaiak elkartu ziren. Otxoak Joango anaiari ordainagiria eman zion, etxeko seniparteagatik zegokiona ia osorik jaso zuelako. 26 kintal burdina baino ez zeuzkan jasotzeko Otxoak. Lekuko hauek izan ziren: Martin Uzkudun-gaia? aiarra, Pedro Zuube zestoarra eta Lope Oribar.

- 1467-XI-21ean, Bekolako burdinolan Joan Lopez Amilibikoa eskribauaren aurrean Joan Lopez Altzolaraskoaren alaba Ingelesa aurkeztu zen. 67 kintal eta erdi burdina jaso izanaren ordainagiria eman zion Joango Altzolarats anaiari. Beste 32,5 kintal jasotzeko zeuzkan. Lekuko honako hauek izan ziren: Martin Arteaga zumaiarra, Pedro Altzolarats eta Joango Etxegarai zestoarrak.



1.11. irudia. Bekolako presa.

Egun eta leku berean Joan Lopez Amilibikoak beste agiri bat ere idatzi zuen. Ingelesa Altzolaratsek uko egin zion Bekolan zegokion seniparteari Joango Altzolarats anaiaren alde, burdinatan kobratua baitzuen.

- 1499-II-12an, Bekolako burdinolan Joan Lopez Altzolaraskoa seme Pedro Altzolaratsekin elkartu zen, Nikolas Ibañez Igartzakoa eskribauaren aurrean. Joan Lopezen Jofre Altzolarats semeari 300 kintal burdina ordaintzeko konpromisoa hartu zuten. Beduan emango zizkioten hurrengo ekaineko San Joan egunetik hamar urteko epearen barruan, Bekolako seniparteagatik zegozkion. Lekuko hauek izan ziren: Joango Gorosarri, Domingo Zinkunegi (Bedamako errotako maizterra) eta eskribauaren Iñigo semea²².

Leku eta egun berean, Jofre Altzolaratsek uko egin zion, anaia Joangoren mesedetan, Bekolan zegokion seniparteari.

-1504-IX-30ean, Zumaiako Santiagoko hondartzan, ermitaren aurrean, Zestoako Bekolako Pedro Lopez Altzolaraskoak eta Getariako Maria Perez Untzetakoak ezkontza-kontratua egin zuten, Joan Ibañez Amilibikoa eta Nikolas Ibañez Igartzakoa eskribauen aurrean. Pedro Lopez Zestoako Joan Lopez Altzolaraskoaren eta Grazia Sasiola zenaren semea zen, eta Maria Perez Getariako Joan Ortiz Untzetakoaren eta Maria Ibañez Amilibikoaren alaba.

Joan Lopez Altzolaraskoak senar-emazte berriei Bekolako etxea, burdinola erreminta guztiekin eta errotak eman zizkien; baita Bedamako Iruesaroe baserria eta Errotaetxea bere errotarekin ere. Halaber Pagaldazuri eta Asu baserriak eta Zornotza etxea eman zizkien Joan Lopez aitak, beren lur, soro, mendi, baso, belardi, sagasti, zuhaitz, abere eta iturri guztiekin, baina honako baldintza hauekin:

- Senar-emazte gazteek beren gain hartuko zituzten Bekolako etxean hildakoen arimeiz zegozkien betebeharrak.

- Joan Lopez aitak beretzat gordeko zituen nahi zituen ohe, harizko arropa, burdina, diru, bitxi eta ondasun higigarriak. Ardi guztiak ere bereak izango zituen. Bizialdi osoan behien "etekina" berea izango zuen Joan Lopez aitak, eta beste seme edo alaba bakoitzari behi bat edo bi emateko ahalmena izango zuen.

- Bekolako burdinolan Joan Lopez aitak urtero 30 kintal burdina egin ahal izango zituen. Burdin mea eta ikatza aitak ipiniko zituen, baina ikatza Bekolako basoetan egin ahal izango zuen.

- Pedro Lopez eta Maria Perez senar-emazteek ordainduko zituzten Bekolako etxeak egun hartara arte izan zitzakeen zorrak.

Joan Lopez aitak beretzat izango zuen Bekolako ondasun guztien prestazioaren erdia, bizi zen bitartean. Prestazioaren erdia senar-emazteen esku uzten bazuen, Joan Lopez aita elikatu, jantzi eta zaindu egingo zuten, baina ganaduen prestazioa beti aitak edukiko zuen.

Maria Perez Untzetakoaren gurasoek (Joan Ortiz Untzetakoak eta Maria Ibañez Amilibikoak) 500 kintal burdina agindu zizkieten senar-emazte gazteei; baita zilarrezko hiru katilu, zortzi ohe oso eta Maria alabarentzako arropak ere. Kintal burdinekin Joan Lopez Altzolaraskoak zeuzkan zorrak ordainduko zituzten.

Joan Ortizek eta Maria Ibañezek fidatzaile hauek aurkeztu zituzten: Getariako Joan Martinez Amilibikoa, semea, eta Joan Martinez Mantelolakoa, sastrea, eta Zarauzko Otxoa Martinez Urragakoa. Agindutako 500 kintalak Bedua, Orío edo Geletako errenterian ipiniko zituzten hiru epetan. Lehen herena hurrengo Eguberri egunerako ordainduko zuten. Bigarren herena 1505. urteko Eguberri egunerako emango zuten, eta azken herena beste urtebeteren buruan. Zilarrezko katiluak, oheak, arropak, etab. hurrengo Mendekoste egunerako emango zituzten.

Ezkontza seme-alabarik gabe desegiten baldin bazen, edo seme-alabak testamentua egiteko adina

baino lehen hiltzen baldin baziren, ondasun bakoitza bere jatorrizko enborrera itzuliko zen. Ondasun haiek sortutako irabaziak, baldin bazeuden, erdibana joango ziren Bekolara eta Getariako Joan Ortizengana (edo ondorengoengana).

Joan Lopez Altzolaraskoak fidatzaile hauek aurkeztu zituen: Zumaiako Joan Martinez Arteagakoa (Joan Martinez Arteagakoa zenaren semea), Errezilgo Martin Ruiz Errekondokoa eta Aizarnako Jofre Altzolarats. Ezkontza-kontratuan lekuko honako hauek izan ziren: Getarian bizi ziren Beltran Ibañez Gebarakoa, Pedro Aldamar eta Martin Orroaga (ikus [XVI. m. (04) 3] agiria).

- 1504-X-13an, Zestoako Altzolaratsen (Bekolan), Pedro Lopez Altzolaraskoaren emazte Maria Perez Untzetakoak ahalordea eman zien Pedro Lopez senarrari, Madotxo Olazabal eta Joan Sarastumeaga donostiarrei, Joan Lopez Sarakoa tolosarrari eta Joan Perez Eizagirrekoa azpeitiarrari, haren auzietan prokuradore izan zitezen.

Maria Perez (edo Ortiz) Untzetakoa getariarra lehenbizi Fernando Orexarekin ezkondu zen Getariara, eta, alargundu ondoren, berriz ezkondu zen Zestoako Bekolara. Lehen ezkontzara, ordea, Teresa Arteaga amonak eta gurasoek emandako dotea eraman zuen: 300 kintal burdina, urre eta zilarrezko bitxiak, oheak, arropak, arroa eta beste hainbat gauza. Seme-alabarik izan gabe alargundu zenez gero, Fernando Orexa senar zenaren anai-arreba Beltran Orexa eta Katalina Orexarengandik dotea berreskuratu egin nahi zuen. Joan Amilibia anaia getariarrarengandik 30 kintal burdina eta urrezko 12 dukat ere eskuratu nahi zituen. Ahalorde-agiria Zestoako Joan Martinez Zabalakoa eskribauak idatzi zuen, bertan lekuko Martin Otxoa Artazubiagakoa, Esteban Artazubiaga anaia eta Joan Altzolarats zestoarrak izanik.

- 1504-XI-13an, Getarian, Beltran Orexak ahalordea eman zien Getariako Martin Mantelola apaizari, Aizarnako Iñigo Ruiz Etxeberrikoari eta Joan Otxoa Zorrobiagakoa tolosarrari, haren auzietan prokuradore izan zitezen.



1.12. irudia. Aizarnako Etxeberri baserria.

Auzia Joan Ortiz Untzetakoarekin eta haren emaztearekin izango zuen, Fernando Orexa anai zenak oinordetzan utzi zizkion diru, bitxi, arreo eta abar zirela medio. Ahalorde-agiria Getariako eskribau Joan Martinez Amilibikoak idatzi zuen, eta lekuko Getariako auzotar hauek izan ziren: Joan Martinez Mantelolakoa eskribaua, Joan Atristain eta Otxoa Mantelola.

- 1504-XII-15ean, Tolosan, Rodrigo Vela Nuñez korrejidorearen eta Migel Perez Idiakaizkoa eskribauaren aurrean Pedro Lopez Altzolaraskoa (Bekolakoa) azaldu zen Maria Perez emaztearen prokuradore gisa, ahalorde-agiria zuela. Emaztearen lehen ezkontzako kontratua (1498-V-24koa) eta Fernando Orexa lehen senarraren testamentua eta kodiziloa (ikus [XVI. m. (03) 1] agiria) ere erakutsi zizkien.

Pedro Lopezek zioenez, Maria Perez emaztearen gurasoek (Joan Ortiz Untzetakoak eta Maria Ibañez Amilibikoak) dotea eman zioten alabari lehen ezkontzarako, eta hura berreskuratu nahi zuen. Dotea osatzen zuten kintal burdina, bitxi, arropa, arreo eta abar banan-banan zehaztuta zeuden.

Korrejidoreak, ondoren, Getariako alkateei (bi alkate arrunt zeuden orduan) agindua bidali zien Maria Perezen doteko urre eta zilarrak, arropak eta arreoak guztira zenbat balio zuten jakin zezaten. Joan Martinez Lasakoak eta Joan Otxoa Zorrobiagakoa izan ziren lekuko. Alkateek beren ikerketa eskribauarekin egingo zuten, eta agiriak sinatuta, itxita eta zigilatuta emango zizkioten Pedro Lopezi.

Egun eta leku berean Pedro Lopez Altzolaraskoak emazte Maria Perez Untzetakoaren prokuradoreak aldatu egin zituen. Martin Martinez Lasakoak eta Joan Perez Eizagirrekoa azpeitiarrak eta Joan Perez Umansorokoa azkoitiarra izango ziren handik aurrera emaztearen prokuradore. Izendapen hartan lekuko izan ziren Joan Martinez Lasakoak eta Joan Perez Egibarkoa azpeitiarrak, eta Joan Eizagirre azkoitiarra (ikus [XVI. m. (04) 4] agiria).

1.4.4. Martin Gartzia Lasakoaren eta anai-arreben tutoreak

- 1504-XII-27an, Lasako etxean, Zestoako Pedro Altzolarats alkatearen eta Azpeitiko Joan Perez Eizagirrekoa eskribauaren aurrean, Maria Perez Etxeberrikoa zestoarra (Pedro Otxoa Artazubiagakoren alarguna) zegoen. Berekin zituen Lasako etxeko Martin Gartzia, Maria, Joan Gartzia, Katalina eta Maria Anes bilobak, hau da, Joan Gartzia Lasakoak zena eta Ana Perez Artazubiagakoa emazte zenaren legezko seme-alabak.

Martin Gartziak 14 urte beteak zituen, Mariak 12 eta gainerako hirurek 12 urte baino gutxiago zituzten. Gazte haiek eta zegozkien ondasunak kudeatzeko Martin Gartziak eta Mariak kuradore edo zaintzaileak behar zituzten, eta Joan Gartzia, Katalina eta Maria Anes Lasakoak tutoreak.

Zestoako alkateak galdetuta, Maria Ruiz Etxeberrikoak biloben tutore eta zaintzailatzat Pero Otxoa Eizagirrekoa azpeitiarra eta Iñigo Ruiz Etxeberrikoa eta Martin Otxoa Artazubiagakoa zestoarrak proposatu zituen, haurren osabak eta gertuko senideak zirelako. Hiru hauek ere Lasako etxean ziren orduan.

Martin Gartziak eta Maria Lasakoak onartu egin zituzten hiru haiek zaintzailatzat. Proposatutako hiru tutore eta zaintzaileak ere prest agertu ziren kargu haiek bere gain hartu eta zintzo jokatzeko. Alkatearen aurrean zin egin zuten, eta beren buruak eta ondasunak behartu egin zituzten adingabeen pertsona eta ondasunak ongi kudeatzearen. Hiru tutore eta zaintzaileen fidatzailetzat Sebastian Artazubiaga, Martin Arano (Akoan bizi zena) eta Joan Akertza zestoarrak aurkeztu zituzten. Haiek ere orduan Lasako etxean zeuden.

Zestoako alkate Pedro Altzolaratsek ahalordea eman zien aipatutako Pero Otxoa, Iñigo Ruiz eta Martin Otxoari bost adingabeen tutore eta zaintzaile izan zitezen. Ondasunak kudeatzeko, auzietan parte hartzeko, prokuradoreak izendatzeko eta abarretarako ahalordea zuten hirurek eta haietako bakoitzak.



1.13. irudia. Lasako errota.

Joan Perez Eizagirrekoa eskribau azpeitiarrak egindako agirian lekuko hauek izan ziren: Martin Edarritzaga eta Martin Ruiz Ganboakoa ikazkin zestoarrak, eta Paskual Larrar azpeitiarra. Ez zuten agiria sinatu, idazten ez zekitelako.

Ondoren, alkatearen eta eskribau zein lekuko beraien aurrean hiru tutoreek Lasako etxeak zituen ondasunen aipamena egin zuten: etxea, burdinola eta ostilamendua, mendi, lur eta sagastiak, 30 bat behi (herena Joan Ezuria zestoarrarena izanik), bi mando, zaldi bat, 70 bat ardi, 20 ahuntz, 20 txerri, 11 idi, eta beste 2 behi eta 16 ardi (Pedro Leizaolarekin erdi bana) (ikus [XVI. m. (04) 6] irudia).

1.4.5. Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Isabel Katolikoaren heriotza, etab.

1504. urteko apirilean Gipuzkoako Batzar Nagusiak Bergaran bildu ziren. Hilaren 26ko bilkuran Leintz bailarari hurrengo lau urteetan 45 sukalderi

zegokion ordainketa barkatu egin zioten, Naiarako dukeak ezartzen zizkien eragozpenak zirela medio¹⁵. Lehendik beste bost urteko gastuak ere arrazoi beragatik barkatuak zizkion Probintziak Leintz bailarari².

Hilaren 30ean egindako bilkuran erabakita, Rodrigo Vela Nuñez korrejidorearen aginduz, Joan Martinez Aranburukoa gortera prokuradore gisa bidali zuten Probintzia ongi gobernatzeko zenbait Ordenantza-kapitulurekin².

1504. urtean Anton Gonzalez Andiakoa, Domenjon zenaren semea eta Gipuzkoako Batzarretako eskribau fiela, hil egin zen. Ofizio hartarako Fernando *Katoliko* erregeak Medina del Campon 1504-X-17an egindako agiriaren bidez Anton Gonzalez zenaren izen-abizen bereko seme Anton Gonzalez Andiakoa, Debako auzotarra, izendatu zuen biziardirako, baina baldintza ezarri zion: eskribau fielak ezin zuen elizgizona izan²³.

Probintzia, bestalde, arautzen hasi zen korrejido-reak zein hiribildu eta lekutan zenbat denbora egon behar zuen².

Urte hartan, gainera, zenbait errege-agindu iritsi ziren Gipuzkoako Probintziara:

- 1504-III-23an Medina del Campotik bidalitakoan, epaileak eta eskribauak egindako eskrituren atzeko aldean kobratutako saria idaztera behartu zituzten.

Egun eta leku bereko beste agindu baten bidez, Probintziako korrejidoreak ezin zien tratu txarrik eman, arantzelak esandakoa baino gehiago kobratu zuelako, aurka egiteko ahalordea eman zuten prokuradore eta eskribauei.

- 1504-IV-4an Alcala de Henarestik bidalitako aginduan debekatu egin zitzaizen Frantziako, Nafarroako edo Kalagorriko elizbarrutiko eliza, monasterio edo elizetako pertsoneri dohaintzak egitea.

- 1504-V-18an Medina del Campotik bidalitako errege-aginduan korrejidore eta ofizialak behartu egin ziren erreinuko arantzela errespetatzera.

- 1504-IX-3an Medina del Campotik bidalitako errege-agirian kontsulatu-pribilegioak eman zitzaizkien Gipuzkoako itsasgizonei.

- 1504-XI-26an Medina del Campotik Isabel erregina hil egin zela jakinarazi zuten. Probintzian Joana alabaren aldeko zutoihalak altxa zitzatela agindu zuten².

Egun batzuk geroago, 1504-XII-15ean, Azpeitiko plazan Martin Perez Alzagakoa eta Sebastian Egurtza alkateekin batera auzotar ugari bildu zen. Martin Perez Akemendikoa fiela ere bertan zen. Bandera eta guzti herriko kaleetan ibili ziren Isabel *Katolika* zenaren alaba Joana (Joana *Eroa*) Gaztelako erreginatzat aldarrikatzen. Joan Martinez Egurtzakoa eskri-



1.14. irudia. Azpeitiko plaza.

bauak hartu zuen gertaeraren testigantza, eta lekuko azpeitiar hauek izan ziren: Pero Perez Zabalakoa batxilerra, Garagartzako batxilerra eta Joan Larrea pregoilaria.

Zestoako Domingo Amilibia eskribauak bere protokoloetan jaso zuen Azpeitiko gertaera hau (ikus [XVI. m. (04) 5] agiria).

Isabel *Katolika* erregina Medina del Campon hil zen 1504-XI-26an. Testamentuan adierazi zuenez, Fernando senarrak gobernatuko zuen Gaztelako erregina Joana *Eroaren* Karlos printzea adinez nagusi izan arte, baldin eta Joana alaba erregina-kargua betetzeko gai ez bazen. Felipe *Ederra* ez zuen aipatu ere egin testamentuan.

Fernando *Katolikoak* 52 urte zituen orduan, eta Aragoiko Gorteen ematen zioten aukeraz baliatu nahi zuen, hau da, berriz ezkondu eta beste seme-alabaren

bat Aragoiko oinordeko izendatzea. Ez zion axola orduan zegoen erreinuen arteko batasuna haustea. Gaztelako Enrike IV.a errege zenaren Joana *Beltranejarekin* ezkontzeko aukera ere baliatu nahi izan zuen⁸.

Joana *Eroa*, berriz, 1504ko martxoaren hasieran Laredotik abiatuta Flandesera joana zen, eta Bruselan bizi zen Felipe *Ederra* senarrarekin.

Urte berean, 1504. urtean, *Errege Katoliko*en kapera-maisu Joanes Antxieta, Granadako kalonjea, Azpeitira itzuli zen bertako elizako erretore gisa⁷. Azpeitiko Soreasuko elizako apaizak ez zeuden ados Enparango etxeko bultzadaz moja frantziskotarren komentua eraiki zutelako. Auzitara eramán zituzten mojak².

Zumaiako San Pedro elizan ere hobekuntzak egin zituzten 1504. urtean. Alboan zituen bi kapera, San Bernaberena eta San Antonena, zabaldu egin zituzten. Elorriagarren eta sasiolatarren familienak ziren²⁴.

1504. urtean, bestalde, *Errege Katoliko*en gortean ibilitako Nikolas Gebara jaunak (Oñatiko lehen konde Iñigo Belez Gebarakoaren ezkontzaz kanpoko semeak) testamentua egin zuen¹⁸.

Zestoako Lili etxeko armarriz 1760. urtean egiaztagiri batean esaten denez, Liliko antzinako dorrearen 1504. urteko aipamena egiten da. Francisco Zazo errege-kronistak dioenez, Liliko dorre zaharrean 1760an hautsitako armarrian hiru lis edo lirio-lore azaltzen ziren, baina 1504. urteaz gero zeuden, hau da, Frantzian lirio-kopurua hirura murriztu eta handik 24 urteaz geroztik²⁵. Errege-kronistak 1760. urtean aipatzen duen Liliko dorre zaharra oraingo Lilibe delá uste dugu.

Eta azkenik, Iruñeko elizbarrutian 1504. urtean izandako aldaketa bat aipagarria da. Elizbarrutiko bikario nagusi izandako Joan Monterderen ordean Joan Santamaria batxilerra izendatu zuen apezpikuak, hau da, Pallavicini kardinalak. Hau hil zen arte izan zen Santamaria batxilerra elizbarrutiko gidari²⁶.

1.5. 1505. URTEA

1.5.1. Pedro Lopez Altzolaraskoa eta emaztea Beltran eta Katalina Orexaren aurka

1505. urtean Gipuzkoako korrejidorearen aurrean auzia zuten Getariako Maria Perez Untzetakoak eta Beltran Orexak. Maria Perez Fernando Orexarekin (Beltranen anaiarekin) 1498-V-24an egindako kontratuaz ezkondu zen, eta bere dotea eramán zuen. Getarian bizi ziren etxea erre zenean, Fernando Orexak testamentua egin zuen (ikus [XVI. m. (03) 1] agiria). Laster hil zen Fernando, baina Maria Perezekin ez zuen seme-alabarik eduki, eta hau berriz ezkondu zen Zestoako Bekolako Pero Lopez Altzolaraskoarekin. Beraz, lehen ezkontzara eramandako dotea berreskuratu egin nahi zuen Maria Perezek.

Ondorioz, Maria Perezek Beltran Orexarekin auzia zuen (ikus [XVI. m. (04) 4] agiria), eta auziari

jarraipena emanez, Pedro (edo Pero) Lopez Altzolaraskoa Getariako Sebastian Zabalaga eta Joan Sebastian Olazabal alkateen aurrean azaldu zen. Bertan zegoen Zarauzko Nikolas Ibañez Igartzakoa eskribaua ere. Korrejidorearen agindua erakutsi zien. Getariako Pedro Balda jostuna, Joan Martinez Amilibikoa, Joan Martinez Abietakoa eta Cardin maisua izan ziren lekuko.

Gero Zestoako Pero Lopezek emaztearen izenean alkateei eta eskribauari korrejidorearen aginduz testigantzak jasotzeko lekuko hauek izendatu zituen: Joan Sebastian alkatea eta Joan Martinez Mantelolakoa jostunak, Domingo Ibañez Gaintzakoa eta Joan Perez Baldakoa zilarginak, Maria Migelez Urkiolakoa, Grazia Egia, Maria Joan Galbete, Madalena Askizu, Domenja Askizu eta Katalina Gerezieta, denak ere getariarrak. Denek zin egin zuten galderei erantzun aurretik.



1.15. irudia. Getariako eliza ondoko pasabidea.

- 1505-I-21ean, Getarian, Sebastian Zabalaga alkatearen eta Nikolas Ibañez Igartzakoa eskribauaren aurrean Bekolako Pedro Lopez Altzolaraskoa azaldu zen, Maria Perez Untzetakoaren bigarren senarra. Katalina Mutio (Martin Mutioren alaba) getariarra lekukoa aurkeztu zuen, eta honek zin egin zuen. Joan Martinez Bildaingoa eta Joan Martinez Mirubikoa izan ziren lekuko.

Pedro Lopez Altzolaraskoak lekukoei egin beharreko galderak aurkeztu zituen:

- 1) Ea Maria Perez Untzetakoa ezagutzen zuten eta haren lehen senar Fernando Oresa ezagutu zuten.
- 2) Ea zekiten Maria Perezek, Fernandorekin ezkondu zenean, zilarrezko bi katilu eraman zituela eta ea zekiten zenbat balio zuten.
- 3) Ea zekiten Maria Perezek ezkondu zenean sei ohe beren izara landu eta gainerako guztiarekin

eraman zituela, eta ea zekiten zenbat balio zuten.

- 4) Ea zekiten Maria Perezek gortina handia eta burkoak eraman zituela, eta ea zekiten zenbat balio zuten.
- 5) Ea zekiten Maria Perezek hainbat jantzi eta arreo eraman zituela, buruko oihal (bata "urraixusi" izenekoa) eta guzti, eta ea zekiten zenbat balio zuten.
- 6) Ea zekiten Maria Perezek lehen ezkontzara urreztaturiko zilarrezko botoiak, zilarrezko gurutz bat eta beste hainbat bitxi eraman zuela, eta ea zekiten zenbat balio zuten.
- 7) Ea zekiten Maria Perezek zilarrezko bi zinta eraman zituela, eta ea zenbat balio zuten.
- 8) Ea zekiten Maria Perezek Fernandoren etxera eramandako arropa, bitxi eta oheak herriko

gizon eta emakume gehienek, ohi bezala, ikusi zituztela.

10) Ea zekiten ordura arte esandakoa herrian eta inguruetan ezaguna zela.

Galdera haiei lekukoek, zin egin ondoren, erantzun egin zieten. Getariako Joan Perez Baldakoa lekukoa zilargina zen eta bitxien prezioak zehaztu egin zituen, Getariako Domingo Gaintza zilarginarekin batera bitxi haiek aztertu, pisatu eta tasatu egin zituelako. Domingo Gaintza zen galderei erantzundako beste lekuko bat. Fernando Orexaren etxea erre zenean, handik ateratako bitxi batzuk ikusiak zituen Domingo Gaintzak.



1.16. irudia. Tolosako Idiakaitz jauregia.

Maria Joango Galbete getariarra zen beste lekuko bat, eta galderetan aipatutako gauzak ikusi zituen, baina ez zekien zenbat balio zuten.

Joan Martinez Mantelolakoa jostunak bere lanbi-deari zegozkion arropa eta abarrei buruzko balioak zehaztu egin zituen, Joan Sebastian Olazabal jostunarekin batera aztertu eta balioetsi egin zituelako.

Grazia Egiak zioenez, Maria Perezek eraman zituen dote gisa gauza haiek, eta Katalina Gerezieta eta biek aztertu eta balioetsi zituzten oheak. Katalina Mutiok buru-estalkiak balioetsi zituen. Prezioen berri eman zuen.

Katalina Gerezietak Grazia Egiak bezala erantzun zien galderei. Madalena Askizuk ikusi zuen dotea, baina balioen berririk ez zuen. Maria Migelez Urkiolakoak ere gauza bera erantzun zuen. Halaber Domenja Askizuk (Martin Orexaren emazteak) ere.

Joan Sebastian Olazabal jostunak Joan Martinez Mantelolakoak bezala erantzun zuen. Katalina Mutiok Maria Perezen gortina, mantalak, etab, aztertu zituen Grazia Egiarekin batera, eta balioen berri eman zuen.

Testigantza haiek Maria Perez Untzetakoaren prokuradore Martin Martinez Lasakoak korrejido-reari aurkeztu eta Fernando Orexaren oinordekoei ondasunak bahitu eta exekutatzeari eskatu zituen.

- 1505-II-12an, Tolosan, Korrejidoarearen eta Migel Perez Idiakaizkoa eskribauaren aurrean Martin Martinez Lasakoa azaldu zen Maria Perezen prokuradore gisa, eta Getarian jasotako testigantzak itxita eta zigilatuta utzi zituen.

- 1505-IV-26an, Tolosan, Rodrigo Vela Nuñez korrejido-reari Martin Martinez Lasakoak idaztia eman zion. Maria Perezek Fernando Orexari emandako dotea berreskura zezan, haren oinordeko Beltran Orexaren ondasunak exekuta zitzala eskatu zion. Joan Lopez Sarakoa eta Joan Lopez Arangoa tolosarrak izan ziren lekuko.

- 1505-IV-30ean, Tolosan, korrejidoreak erabakia jakinarazi zuen. Ondasunak exekutatzeko dotean emandako arropa, bitxi eta abarren balioa jakin behar zuen. Lekuko Frantzisko Idiakaitz eta Joan Martinez Lasakoak izan ziren.

- 1505-V-15ean, Tolosan, Martin Martinez Lasakoak azaldu zen Maria Perezen prokuradore gisa, eta Joan Otxoa Zorrobiagakoak Beltran Orexaren prokuradore gisa. Martin Martinezek berriz eskatu zuen Beltranen ondasunak exekuta zitzatela. Joan Otxoak Martinen idaztiaren kopia eskatu eta aurka egin zion ondasun-exekuzioari. Joan Martinez Segurakoa eta Joan Lopez Arangoa izan ziren lekuko.

- 1505-V-24an, Tolosan, Martin Martinez Lasakoak berriz eskatu zuen gauza bera, baina Joan Otxoa Zorrobiagakoak epea eskatu zion korrejidoreari bere arrazoi eta alegazioak aurkezteko. Sei eguneko epea eman zion.

- 1505-V-28an, Tolosan, Rodrigo Vela Nuñezek epai bidez Beltran Orexari legeak agindutako epea eman zion bere defentsa presta zezan. Lekuko Joan Martinez Lasakoak eta Joan Perez Egibarkoak izan ziren.

- 1505-VI-5ean, Tolosan, Martin Martinez Lasakoak bere aldetik auzia amaitutzat jo zuen, eta korrejidoreak Joan Otxoari sei egun eman zizkion azken argudioak azal zitzaizkien.

- 1505-VI-12an, Tolosan, korrejidoreak agindua eman zion Beltran Orexa getariarrari sei eguneko epean haren aurrera joan eta maltzurkeriaz ez zela ari zin egin zezan. Bekolako Pero Lopezen emazte Maria Perezari ere sei egun eman zizkion aurkariari egiteko galderak presta zitzaizkien.

- 1505-VIII-11n, Donostian, Vela Nuñez korrejidoreak agindua bidali zion Getariako Sebastian Zabalaga eskribauari Maria Perez Untzetakoak eta Beltran Orexak zuten auzian erabaki zuena jakinarazteko. Bi aldeak, epai bidez, onartu egin zituen bakoitzak bere

frogak eta testigantzak bederatzi eguneko epean aurkez zitzan. Testigantzak jasotzeko eskribau izendatu zuen, eta Beltranek ere bere eskribaua izendatuko zuen, bien artean lekukoei galderak egin eta erantzunak jasotzearen.

- 1505-VIII-21ean, Getarian, Joan Beltran Arteagaren etxe aurrean, Sebastian Zabalaga eskribauak korrejidorearen agindua erakutsi zuen. Bekolako Pero Lopezek, emaztearen izenean, agindua bete zezala eskatu zuen. Lekuko Joan Ortiz Untzetakoak eskribaua eta Fortun Untzeta semea izan ziren.

Ondoren Getarian, Maria Joan Lasturrena izandako etxean, Beltran Orexak korrejidorearen agindua bete zezala eskatu zion Zabalaga eskribauari. Getaria



1.17. irudia. Getaria. Joan Sebastian Elkanoren monumentua.

riako Fortun Untzeta eta Domingo San Milian eliz mutilak izan ziren lekuko.

Egun berean Pero Lopez Altzolaraskoak Maria Perez emaztearen prokuradore Joan Migelez Zarauzkoa izan zedin ahalorde-agiria aurkeztu zuen, Sebastian Zabalaga eskribauak egina.

- 1505-VIII-22an, Getarian, Sebastian Zabalaga eta Joan Martinez Mantelolakoa eskribauaren aurrean Beltran Oresa azaldu zen, eta idazti bat eman zien. Pero Lopez Altzolaraskoak eta Beltran Oresak hitzarmena egin omen zuten Zestoako Joan Martinez Ibañetakoak eskribauaren aurrean. Bertan Pero Lopezek auzia zegoen bezala ezer egin gabe utzi behar omen zuten, baina isilpean bere urratsak egin omen zituen. Protesta egin zuen horregatik. Joan Martinez Mantelolakoa izendatu zuen eskribautzat, testigantzak jaso zitzaizkion. Lekuko Antso Migelez Arretzekoa, Migel Martinez Ondarkoa eta Martin Goiatz getariarrak izan ziren.

Ondoren, eta egun berean, Getarian Joan Migelez Zarauzkoak Maria Perezen izenean Zabalaga eta Mantelola eskribauei eskaera egin zien, lekukoei dei egin ziezaieten. Bi eskribauek hauei dei egin zieten: Joan Perez Baldakoari, Domingo Gaintzari, Grazia Egiari, Joan Sebastian Olazabali, Maria Migelez Urkiolakoari, Maria Joango Galbeteri, Joan Martinez Mantelolakoa jostunari, Katalina Gerezieta, Domenja Askizuri eta Katalina Mutiori. Denak ere getariarrak izan ziren.

- 1505-VIII-27an, Getarian, Joan Sebastian Olazabal, Joan Perez Baldakoa, Maria Joango Galbete eta Grazia Egi lekukoek zin egin zuten.

- 1505-IX-1ean, Getarian, Domingo Gaintza eta Domenja Askizu lekukoek zin egin zuten. Ondoren, egun eta leku berean, Katalina Gerezieta, Maria Migelez Urkiolakoa, Madalena Askizu eta Katalina Mutio lekukoek zin egin zuten. Zin haietan lekuko izan ziren Domingo Martinez Gorostiagakoa getariarra eta Jeronimo Costa, Siziliako Messinako merkataria.



1.18. irudia. Getariako Salbatore eliza.

- 1505-IX-3an, Getarian, Sebastian Zabalaga eskribauaren aurrean Joan Martinez Mantelolakoa, Beltran Oresak izendaturiko eskribaua, azaldu eta idazti bat eman zion. Aipaturiko lekukoak lehen ere emanak zizuten testigantzak, baina prozedura okerraz egin zenez, dena hutsetik hastea eskatu zuen. Bestela Beltran Oresaren kaltetan izango omen zen. Antso Migelez Arretzekoa eta Martin Goiatz getariarrak izan ziren lekuko.

Ondoren, lekukoek beren testigantzak eman zizuten. Grazia Egiak 60 urte zituen, eta Maria Perez Untzetakoa iloba zuen. Domenja Askizuk 25 urte zituen. Madalena Askizuk 23 urte zituen eta Beltran Oresa osaba zuen (amaren anaia). Katalina Mutio 28 urte zituen. Maria Migelez Urkiolakoak 75 urte

zituen. Domingo Gaintzak 46 urte zituen. Joan Perez Baldakoak 56. Katalina Gerezietak 50 urte zituen, eta Beltran Orexaren lehengusu txikia zen. Joan Sebastian Zabalaga 53 urtekoa eta Beltran Orexaren lehengusu txikia zen. Maria Joango Galbetek 29 urte zituen. Beltran Orexaren koinata zen, eta Fernando Oresa zenaren ohelaguna izan omen zen.

Aipatutako lekuko hauek guztiek esan zuten, auzi hartan lehen ere Getariako alkateen eta Zarauzko Nikolas Ibañez Igartzakoa eskribauaren aurrean aitorenak eginak zituzten. Haiek osorik berretsi zituzten lekuko guztiek.

Maria Perezen Martin Martinez Lasaokoa prokuradoreak testigantza haiek itxita eta zigilatuta eman zizkion korrejidoreari, eta publika zitzala eskatu zion. Joan Martinez Lasaokoa eta Joan Eizagirre izan ziren lekuko.

- 1505-IX-24an, Getarian, Beltran Orexak testamentua egin zuen, ohean gaixo zegoela eta. Hil-

dakoan gorputza Getariako elizan ama zenaren ondoan hobiratzea agindu zuen. Hiletak ohi bezala egingo zizkioten. Getariako eliza eta ermitei bere limosna utzi zien.

Beltran Orexak Maria Fernandez Etxeberrikoarekin eta honen suhi Fernando Arreitza hauspogilearekin egindako kontratua bete zezatela agindu zuen.

Martin Mantelola apaiz lehengusuak Beltran eta Katalina Oresa mantendu eta jantzi egin zituen, eta oinordekoak zorra ordaindu egingo zion. Martin apaizak dirua ere eman zion Beltrani Pero Lopez Altzaraskoarekin eta Maria Perez Untzetakoarekin zuen auzirako.

Testamentu-betearazle bost hauek izendatu zituen: Martin Mantelola, Katalina Oresa arreba, Maria Fernandez Etxeberrikoa, Fernando Arreitza eta honen emazte Aniza Perez. Katalina Oresa arreba izango zen oinordeko unibertsal.



1.19. irudia. Aizarnazabalgo Amilibiaundi.

Testamentua Martin Mantelolaren etxean idatzi zuen Getariako Joan Martinez Amilibikoa eskribauak. Lekuko hauek izan ziren: Joan Martinez Mantelolakoa eskribaua, Domingo Gaintza eta Otxoa Martinez Agirrekoa getariarrak.

- 1505-X-6an, Donostian, Rodrigo Vela Nuñez korrejidoreak agindua eman zion Joan Otxoa Zorrobiagakoari, hau da, Beltran Orexaren prokuradoreari. Aginduan zioenez, Beltran Oresa hil egin zen eta Katalina zein Maria Migel Oresa arrebak ziren oinordeko. Haiek jarraitu behar zuten Fernando eta Beltran anaia zenduek Maria Perezekin zuten auzia. Lau egun zituzten horretarako.

- 1505-X-7an, Getarian, Joan Martinez Amilibikoa eskribauak jakinarazi zien Katalina eta Maria Migel Oresa ahizpei korrejidorearen agindua, Domingo Gaintza eta Joan Aldape lekuko zirela.

- 1505-X-11n, Donostian, Katalina Oresa korrejidorearen aurrean azaldu zen. Anaia Beltranen oinordetza bere gain hartu zuen. Anaia Beltranek Maria Perez Untzetakoa koinatarekin zuen auzian legeak ez omen ziren bete. Gainera, Maria Perezek bi aldiz kobratu nahi omen zuen bereganaturik zuen dotea. Etxea erretzen ere, Maria Perez errudun omen zen, ikatzak han gaizki erabili zituelako. Erretako etxetik gauzak eramane zituzten Maria Perezen gurasoen etxera, eta han testamentua eginda laster hil zen Fernando Oresa. Auzia bertan behera utzi behar zuen korrejidoreak, eta auzi-gastuak Maria Perezari ordainarazi behar zizkion.

Maria Perezen prokuradore Martin Martinez Lasakoak Katalinaren idaztiaren kopia eskatu eta korrejidoreak eman egin zion.

- 1505-X-21ean, Getarian, Katalina Oresak Joan Martinez Mantelolakoa eskribauak idatzitako ahalorde-agiria eman zien Joan Lopez Sarakoa eta Joan Otxoa Zorrobiagakoa tolosarrei, eta Joan Martinez Ibarbiakoa azpeitiarrari, Maria Perez Untzetakoarekin zuen auzian prokuradore

izan zitezten. Martin Mantelola, Gontzalo Seguro eta Pedro Gorostiola getariarrak izan ziren lekuko.

- 1505-X-22an, Azpeitian, korrejidore aurrean Martin Martinez Lasakoak prokuradorea azaldu zen. Katalina Oresak azkena aurkeztutakoari aurka egin zion idatzi bidez.

- 1505-XI-28an, Azpeitian, korrejidore aurrean Joan Martinez Ibarbiakoa azaldu zen, eta Katalina Oresaren ahalorde-agiria aurkeztu zuen.

- 1505-XII-12an, Azpeitian, alde bakoitzeko prokuradoreak bere arrazoiak aurkeztu ondoren, korrejidoreak epaia eman zuen: Katalina Oresa auzian parte zela onartu zuen, Beltran Oresaren oinordeko gisa. Sei eguneko epean korrejidore aurrean zin egin beharko zuen.

- 1505-XII-17an, Azpeitian, Katalina Oresak bere zina egin zuen. Ondoren korrejidoreak agindua bidali zion Maria Perez Untzetakoari lau eguneko epean zin egitera joan zedin eta Katalina Oresaren galderei erantzun diezaien.

Segidan, Katalina Oresak Maria Perezek ipinitako galderei erantzungo zien. 140 kintal burdina besterik ez omen zuen jaso anaia Fernando zenak.

- 1505-XII-18an, Azpeitian, Joan Martinez Ibarbiakoa prokuradoreak Katalina Oresak auziari buruz ipinitako 15 galdera aurkeztu zituen. Batean zioenez, Fernando Oresaren etxea Getariako kalean zegoen. Otxoa Martinez Beduakoaren baratzea eta Migel Ibañez Oresakoaren etxea zizuten mugakide.

- 1505-XII-19an, Azpeitian, Maria Perezek zin egin zuen, eta Katalina Oresaren galderei erantzuna eman zien. Etxeak su hartzean ez omen zuen errurik eduki, eta eramandako dotea jasotzeko omen zeukan (ikus [XVI. m. (05) 1] agiria).



1.20. irudia. Zumaiako Ubillos jauregia.

1.5.2. Zumaia, Aizarnazabal eta Oikiaren gastu-banaketa

- 1505-III-3an Zumaiako Kontzejuak auzotar guztiek martxoko Ama Birjinaren egunean (martxoaren 25ean) ordaindu beharreko gastuen zerrenda zehatza egin zuen. Aizarnazabal eta Oikiakoek ordaindu beharrekoa zorrotz justifikatu behar zuten, Saiazko jendea Zumaian 1486an auzia galtzearen ondorioz gogoz kontra zegoelako. 1505eko martxokoa da ondoko zerrenda.

Kontzejuan, besteak beste, honako hauek bildu ziren: Pero Fernandez Indanetakoa eta Beltran Arteaga alkateak, San Joan Uranga sindiko prokuradorea eta zinegotzi nagusia, Migel Aia zinegotzi txikia, Joan Narbazta Saiazko zinegotzi nagusia eta Joan Enbil Saiazko zinegotzi txikia.

Hauek dira gastuen zerrendako atal batzuk:

- Probintziako gastuetarako 100 marai sukaldeko, 3.400 marai guztira.
- San Joan Uranga prokuradoreari Bergarara joan zelako, 112 marai.
- San Joan Urangari Mutrikuko Batzar Nagusietara 13 egunerako joan zelako, 668 marai.
- San Joan Urangari Bidanira joan eta lau egunez egon zelako, 218 marai.
- Joan Aia zilarginari, 36 marai.
- Martin Narruondo maisuari Mutrikuko Batzarretan bost egun egin zituelako, 250 marai.
- Pero Fernandez Indanetakoa alkateari erreginaren olatagatik (Isabel erreginaren hiletetakoa izango zen) eta beste gai batzuegatik, 206 marai.
- Lope Fernandez Zumaiakoari eta Joan Martinez Arteagakoari, Bidanian bi egun egin zituztelako, 200 marai.
- Narruondoko errotarriengatik, 1.350 marai.
- Bi sakristaudentzat, 500 marai.
- Migel Aiari bi anega erdi eta imina (neurriak) egin zituelako, 297 marai.
- Erregina hil zelako alkateen lutuzko arropengatik, 540 marai.
- Saiazko zinegotzi nagusiari, 200 marai.
- Saiazko zinegotzi txikiari, 100 marai.
- Bi alkateei, 800 marai.

- San Joan Uranga prokuradore eta zinegotziari, 400 marai.

- Eskribau fielari, 500 marai.

Gastuak guztira 12.800 maraikoak ziren. Narruondoko errotatik eta probestutzatik izandako diru-sarreak kenduta, 11.025 marai ordaindu beharko zituzten. Bi heren Zumaiako hiribilduari zegozkion, eta heren bat Saiazi. Bai Saiazek (Aizarnazabalek eta Oikiak) eta bai hiribilduak izandako beste sarrera batzuk kontuan hartuta, azkenean Saiazek 3.275 marai eta Zumaiako hiribilduak 3.595 marai ordainduko zituen.

Zumaiako Kristobal Gartzia Azkuekoa eskribauak idatzi zuen gastu-zerrendaren agiria (ikus [XVI. m. (05) 2] agiria).

Agiri honetan Mutrikuko Batzar Nagusiak eta Bidanira egindako bidaiak aipatzen dira. Bidanira Zumaiatik ordezkariak, gure ustez, Probintziako Batzar Bereziatar joan ziren. Dena den, ez Mutrikuko eta ez Bidaniko Batzarren aipamenik ez dugu beste inon topatu. Mutrikukoak, gure ustez, 1504ko azaroan ospatu ziren.

1.5.3. Joan Fernandez Dornutegikoa eta Martin Otxoa Artazubiagakoa zordun

- 1505-III-8an, Orion, Joan Fernandez Dornutegikoa zumaiarrak eta Martin Otxoa Artazubiagakoa zestoarrak obligazio-agiria sinatu zuten Aiako Arrazubiko Santxa Migelez Atxagakoaren alde. Izan ere, Bekolako Maria Ibañez Altzolaraskoa, hau da, Joan Martinez Arteagakoa zenaren ama eta Joan Ruiz Arteagakoa eta Joan Lopez Arteagakoa adingabeen amona zen. Maria Ibañez zen bi adingabeen tutorea, eta Dornutegikoa eta Artazubiagakoa Joan Ruiz eta Joan Lopezen prokuradore ziren (ikus *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 250] agiria).

Joan Fernandez Dornutegikoak eta Martin Otxoa Artazubiagakoak urtero, bizi zen bitartean, 55 kintal burdina ordainduko zizkioten Santxa Migelez Atxagakoari. Gainera, bi urtez behin, sagar-urtea zenean, hiru beso eta erdiko upela bete sagardo eta “gordasagarra” izeneko sei otarkada sagar ere bai. Horrez gain Arrazubian golde-lurra (neurri bat) emango zioten bertan baratzea eduki zezan, baina lurraren jabegoa Arrazubiko etxearena izango zen.



1.21. irudia. Aia.
Arrazubiko Olazabal.

Haren ordainetan, Santxa Migelezek Arrazubiko etxe, burdinola, errota, lur, mendi eta gainerako ondasunetan zeuzkan gozamen eta eskubide guztiak Joan Ruiz Arteagakoa eta Joan Lopez Arteagakoa adingabeei eman zizkien. Biloba zituen Santxak bi mutilak, Joan Martinez Arteagakoa zenaren eta alaba Maria Ruiz Arrazubikoaren seme zirenez gero.

Dornutegikoak eta Artazubiagakoak beren buruak eta ondasunak behartu egin zituzten, berme gisa, obligazio-kontratu hartan. Kintal burdinen erdia urtero ekaineko San Joan egunerako emango zioten Santxari, Orioko errebalearan edo ondoko portu edo errenteriaren batean, eta beste erdia Eguberrietarako. Sagardoa eta sagarrak bi urtez behin Domu Santu egunerako emango zizkieten. Baratzea egiteko lurra, Santxak eskatu bezain laster emango zioten.

Obligazio-agiria Zarauzko Joan Ibañez Amilibikoa eskribauak idatzi zuen. Lekuko Lope Otxoa Etxeberrikoa eta Martin Oribar oriotarrak, eta Joan Irure aiarra izan ziren.

Segidan eta leku berean, Joan Fernandez Dornutegikoak eta Martin Otxoa Artazubiagakoak obliga-

zioa hartu zuten Santxaren alaba Maria Ruiz Arrazubikoak, Joan Fernandez Olaberrikoa suhiak edo beste inork Arrazubiko presako gailur, burdinola edo beste ezerगतik demandaren bat ipintzen bazuen, ardura osoa beren gain hartzeko. Lehentxeago aipatutako eskribau berak idatzi zuen agiria, eta lekuko ere lehentxeago aipatutakoak izan ziren.

- 1505-V-10ean, Zumaiako Arteaga etxean, bertako etxeakoandre Bekolako Maria Ibañez Altzolaraskoak agiria eginarazi zuen. Maria Ibañez Joan Ruiz eta Joan Lopez biloba adingabeen tutore eta zaintzaile zenez gero, bere burua eta ondasunak behartu egin zituen Joan Fernandez Dornutegikoa eta Martin Otxoa Artazubiagakoa prokuradoreak babesteko. Azken bi hauek Santxa Migelezi kintal burdinak, sagardoak, sagarrak, etab. ordaintzeko beren buruak eta ondasunak berme gisa behartu egin zituzten, eta Maria Ibañezek konpromisoa hartu zuen bi prokuradoreak edozein arriskutatik babesteko. Zarauzko Joan Martinez Amilibikoa eskribauak idatzi zuen agiria. Lekuko Usurbilgo Joan Atxaga (Atxaga etxeako jauna), Joan Martinez Arteagakoa eta Pedro Gasteategi zumaiarrak izan ziren.

1.22. irudia. Zarautz. Elkanoko Gasteategi etxea.



- 1505-VII-21ean, Getarian, Joan Fernandez Dor-
nutegikoa zumaiarrak eta Martin Otxoa Artazubia-
gakoa zestoarrak, Joan Ruiz eta Joan Lopez adinga-
been prokuradore gisa aitortu zuten, Santxa Mige-
lez Atxagakoari obligazio-agiria sinatu zioten. Kintal
burdinak, sagardoa, sagarrak eta baratzea egiteko lu-
rra eman behar zizkioten.

Santxa Migelezek, ordea, beste gauza batzuk ere
urtetik behin, bizi zen bitartean, 110 librako txerria
emango zioten. Lehen txerria San Nikolas egunean
(abenduren 6an) emango zioten, eta hurrengo handi-
k bi urtera. Arrazubiko errotan, gainera, Santxa Mi-
gelezi laboreak doan ehoko zizkioten bizi zen artean.

Zarauzko Joan Ibañez Amilibikoa eskribauak
idatzi zuen agiria. Lekuko Joan Santxez Gaintzakoa
batxilerra, Joan Martinez Arteagakoa zumaiarra eta
Zarauzko Nikolas Ibañez Igartzakoa eskribaua izan
ziren (ikus [XVI. m. (05) 3] agiria).

1.5.4. Beduako Martin Santxez Martza- nakoa Joan Irureren hartzekodun

*Errege Katoliko*en gutun betearazle batean, Valladolli-
den 1505-V-29an emandakoan, Beduako jaun Martin
Santxez Martzanakoak Zumaiako Joan Irure upelgi-
learekin izandako auziaren laburpena ematen da. Be-
hin betiko epaia du azkenean.

Joan Irurek zorretan erosi zion, 1498ko abenduan,
Martin Santxezi mandoa 12 dukatean, eta bere burua
eta ondasunak eman zituen berme gisa (ikus *I ZESTOA
MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 243] agiria).

Geroztik, Joan Irurek ordaintzen ez zuelako, Mar-
tin Santxezek auzia ipini zion Getariako Anton Perez
Arronakoa eta Joan Migelez Agirrekoa alkateen au-
rrean. Joan Amezketa prokuradorearen bidez Joan Iru-
rerren ondasunak bahitu eta enkantean sal zitzatela es-
katu zuen. Getariako alkateek Joan Migelez Mirubikoa
probestuari agindua eman zioten Irure upelgilearen



1.23. irudia. Zestoako Ibañarrietako Irureaundi.

ondasunak bahitu eta exekuta zitzan. Joan Irurek ondasunik ez zuelako, probestuak preso hartu zuen.

Orduan Getariako Joan Martinez Mantelolakoa eskribauak bere baratze bat aurkeztu zuen Joan Irure presondegitik aska zezaten. Pedro Gorostiola getariarra fidatzaile izendatu zuen. Joan Martinezen baratzea saltzeko zenbait pregoi egin zuten, eta Joan Amezketak 25 marai eskaini zituen. Ez zen beste eroslerik azaldu.

Ondoren, Joan Irurek Getariako Beltran Ibañez Gebarakoa eta Joan Perez Baldakoa alkateei idazti bat aurkeztu zien baratzea enkantean saltzearen aurka. Hark Martin Santxez Martzanakoari mandoagatik obligazio-agiria beldurrez, preso zeukatenean eta torturaren mehatxupean sinatu omen zion. Beraz, ez omen zuen baliorik. Mandoa, gainera, Martin Diaz Mirubikoak omen zeukan.

Martin Santxez Martzanakoak zorra kobratzeko arrazoiak azaldu zituen. Beltran Ibañez eta Joan Perez alkateek bi aldeei epea eman zieten bakoitzak bere frogak eta testigantzak aurkez zitzan. Alkateek epaia eman zuten. Ondasunak exekutatu egingo zituzten Martin Santxezi zorra ordaintzeko. Auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen.

Ondoren Martin Santxez Martzanakoak auzia Gipuzkoako korrejidorearengana, Vela Nuñez lizentziatuarengana, eraman zuen. Korrejidoreak Getariako Martin Joan Amilibia eta Gontzalo Seguroa alkateei (Beltran Ibañez eta Joan Perezen ondorengoei) agindua bidali zien. Beduako Martin Santxezek egindako auzi-gastuen tasazioa egin behar zuten, Joan Irurek ordain zitzan. 5.000 maraiko auzi-gastuak ziren Martin Santxezek eginak.

Gero Joan Irurek Valladolidko Errege-kantzelari-tzara eraman zuen auzia apelazio bidez. Han Martin Ruiz Muntzarazkoa izan zen Beduako jaunaren prokuradore. Azkenean Valladolidko epaileek 1504-VIII-27an behin betiko epaia eman zuten. Joan Irurek 12 dukateko zorra ordaindu beharko zuen, baina 5.000 maraiko auzi-gasturik ez, hura preso egona zelako.

Auzi-gastu haiek Amilibia eta Seguroa alkateek ordaindu beharko zizkioten Martin Santxezi.

Ondoren Martin Santxezen aldeak gutun betearazlea eskatu zuen epaitegian, eta 1505-V-29an eman zuen erregeak (ikus [XVI. m. (05) 4] agiria).

Gutun betearazle honen hasieran Fernando eta Isabel errege-erreginak aipatzen dira. Isabel *Katolikoa*, ordea, 1504-XI-16an hil zen, epaia eman ondoren eta gutun betearazlea idatzi baino lehen. Horregatik azken zatian erregea baino ez da aipatzen. Isabel eta Ferdandoren zigilua ipini zioten agiriari, Joana *Eroa* erregina berriarena artean inprimatu gabe zeukatelako.

Bestalde, Zestoako Altzolarasko Beltran Ibañez Gebarakoa (Getariako auzotarra eta Fernando Gebararen aita) eta Joan Perez Baldakoa 1499ko azaroan Getarian egindako Batzar Nagusietan bertako alkate arrunt ziren. Gure ustez 1499-VI-24tik 1500-VI-24a arte izan ziren Getariako alkate arrunt. Beraz, Joan Irurek Beduako jaunari 1498ko abenduan mandoa erosi ondoren sei bat urtez luzatu zen auzia.

1.5.5. Aizarnazabalgo Atristaingo tutoreen ordainagiria

Aizarnazabalen Joan Etxabe, Martin Intxaurregi eta Martin Enbil jaunak Martin Atristain zenaren seme-alaben tutore eta zaintzaile ziren, 1501-XI-21ean Atristaingoak egindako testamentuaren bidez (ikus 1.1.3. atala). Martin zenaren seme Joan Atristain eta Domenja Artzubiaga ezkondu zirenean, Domenjaren aita Joan Areitzagak dote gisa 145 kintal burdina agindu zizkion Zestoako Joan Martinez Ibañetakoa eskribauaren aurrean. Dotea epeka ordaintzekoa zen, eta 120 kintal burdina emanak zituen.

Ondorioz, Joan Etxabe eta beste bi tutoreek ordainagiria eman zioten Joan Areitzagari. Agiria Joan Martinez Ibañetakoa eskribau zestoarrak idatzi zuen Zumaiako partean 1505-VIII-24an. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Arretzekoa, Martin Perez Iribarregoa eta Martin Ibañez Aranokoa (ikus [XVI. m. (05) 5] agiria).



1.24. irudia. Aizarnazabalgo Enbil baserria.

1.5.6. Joan Perez Idiakaizkoak erositako bi lursail

- 1505-XI-20an Zestoako Joan Arretzek, Pedro Arretxe zenaren semeak, Liliko jaun Joan Perez Idiakaizkoari bi lur puska saldu zizkion. Lur horiek Aizubiko errotak zituen presa eta kanalaren eta Legazpi (Urola) ibaiaren artean zeuden. Presatik gertuen zegoen lur puska Aspe etxearen lurrek (bi aldetatik), kanalak eta ibaiak mugatzen zuten. Presatik urrunago zegoen lursailak, berriz, mugakide Martin Perez Lizarraraskoaren eta Migel Lizarrarats zenaren lurrak zituen. Migel Lizarrarats zenaren lurrak orduan Joan “Luze” Ipintzaren etxearenak ziren.

Joan Arretzek bere bi lursailengatik urrezko hamar dukat kobratu zituen Joan Perez Idiakaizkoarengandik, eta konpromisoa hartu zuen, bere aldeko hainbat lege eta eskubideri uko eginez, salmenta haren aurka ez joateko. Bestela urrezko berrehun dukateko isuna ordaindu beharko zuen.

Azpeitiko Joan Perez Eizagirrekoa eskribauak idatzi zuen salerosketa-agiria. Lekuko Domingo Ibañez Arrietakoa azpeitiarra eta Zestoako Joan Martinez Bidanikoa izan ziren (ikus [XVI. m. (05) 6] agiria).

Joan Perez Eizagirrekoa erreginaren eskribau zela aipatzen da, eta ez erregearen eskribau. Bestalde, Aizubiko erroten presa, gure ustez, orain bezala Zubimusun zegoen.



1.25. irudia. Zubimusuko zubia eta presa.

1.5.7. Tolosako eta Basarteko Batzarrak, etab.

1505. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiak Tolosan bildu ziren apirilean. Bertan Batzarretako presidenteari buruzko gaia aztertu zuten¹⁵. Batzarrak egiten ziren hiribilduan legegizon bat edo bi baldin bazeuden, horietako bat edo biak izango ziren Batzarretako presidente. Hiribilduan bi legegizon baino gehiago baldin bazeuden, hiribilduak izendatuko zuen haietako bat, edo Batzarrak hautatuko zuen zozketa eginez¹².

Urte berean Azkoitiko Basarten Batzar Bereziak bildu ziren, eta ez zuten onartu Salinasko kondea Gipuzkoako alkate nagusi izateko egin zuten izendapena¹⁵. Ordura arte Diego Perez Sarmiento izan zen Gipuzkoako alkate nagusi, baina honek karguari uko egin zion biloba Diego Gomez Sarmientoren mesedetan. 1505-VIII-22an Segovian emandako errege-zedularen bidez izendatu zuten biloba Gipuzkoako alkate nagusi. Probintziak agindua obeditu zuen, baina ez zuen bete. Murgia eta Jauregi batxilerrak bidali zituzten gaiaren berri ematera.

1505-I-4an Zamorako Torotik Joana *Eroa* erreginak zedula bidali zuen Gipuzkoara, eta bertan agintzen zuenez, bertako biztanleen itsasontzietan kargatu behar ziren salgaiak.

1505-I-7an Joana erreginak Gipuzkoako ermandade-alkateei gutuna bidali zien. Han zioenez, Gipuzkoar askok delituak egiten zituzten errege-ordenantzen eta legeen aurka, eta agindua eman zien Koadernoetan zeuden zigorrak ezar zitzaten.

1505-I-8an Joana erreginak Torotik gutuna bidali zion Gipuzkoako korrejidoreari. Premia zegoen lekuetan ibili behar zuen, baina egoitza Tolosan ahalik eta denbora gehien edukitzea gomendatu zion.

1505-III-13an Torotik beste agindu bat bidali zuen erreginak Gipuzkoara, bertako edozein eskribau hiltzen zenean hildakoaren paperak erregeak izendatukoaren eskuetara pasa zitezten.

1505-V-9an Segoviatik Vela Nuñez korrejidoreari

errege-agindua bidali zioten sei merioorde baino gehiago egon ez zitezten.

1505-VI-18an Gipuzkoako korrejidoreari errege-agindua bidali zioten egoitza Gipuzkoan behar zen lekuan edo lekuetan eduki zezan, eta ez Tolosan bakarrik.

1505-VI-24an Segovian egindako errege-gutunean agindu hau eman zen: eskribau bat beste baten ordezkari lanean hasten zenean, aurrekoaren erregistroak bere gain hartuko zituen.

1505-V-27an Segoviatik agindua bidali zioten Vela Nuñez korrejidoreari, Gipuzkoako sekularren gaietan Elizako notario apostolikoek parterik har ez zezaten.

1505-IX-6an Segovian Joana *Eroa* erreginak Gipuzkoako eta Bizkaiko korrejidoreei gutuna bidali zien Frantziara burdin mearik bidal ez zezaten.

1505-XII-26an Salamancatik errege-zedula bidali zuten Fernando *Katolikoak* bere alaba eta suhiarekin erreinuak gobernatzeko egindako hitzarmenaren berri emanez².

1505. urteko Toroko legeetan ondasunen “tronkalekotasuna” zehatz-mehatz arautu zen. Gipuzkoan Donostiako Foruaz eta Lizarrako Foruaz ondasunak “tronko” edo “enbor” batean edukitzeko sistema garatuta zegoen lehendik ere²⁷.

1505. urtean, bestalde, *Errege Katoliko*en gortean kontulari ibilitako Nikolas Gebara hil egin zen, eta hark Gipuzkoako zenbait burdinolatako zergak kobratzeko eskubidea Diego Gebara semeak hartu zuen bere gain. Isurolako burdinolan, Lilikoan, Iraetakoan, Arroakoan eta Loiolakoan zuen Diego Gebarak “alkabala eta hamarren zaharra” kobratzeko eskubidea¹³.

Oñazko jaunak, Martin Gartzia Loiolakoak, arazoa zuen Azpeitiko Soreasuko elizarekin. Martin bera zen elizako patroia, baina erretore Joanes Antxieta musikari famatua zegoen, eta ez zetozen bat hamarrenak eta errentak banatzeko eraz. 1505ean hitzarmena egin zuten, baina laster hasi ziren auzitan gai haren inguruan².



1.26. irudia. Azpeitia.
Matxinbentako Isurola.

1505. urtean bertan, Sevillako Kontratazio Etxeak Martin Zamudio bilbotarrari agindua eman zion Euskal Herrian Ameriketarako joan-etorrirako itsasontziak eta artilleria eros zitzaizkan²⁸.

1505-II-20an, eta Iruñeko elizbarrutiari dagokionez, Pallavicini kardinalak Aragoiko Valdonsellarako eta Gipuzkoarako ofizial bana izendatu zuen. Iruñeko apezpikuak Elizaren esparruko auzietarako bi ofizialei Iruñeko ofizialen botere bera eman zien. Garai hartan Nafarroako erreinukoak eta Aragoi zein Gaztelakoak elkarren etsai ziren. Gipuzkoatik edo Aragoitik Iruñera joaten zirenean hildakoak, zaurituak eta irainak ugari izaten zirelako, Iruñeko Pallavicini apezpikuak arazoak saihestu egin nahi zituen²⁶.

Gaztelan ere giroa ez zen barea. Isabel *Katolikoa* hil ondoren, erreinua Felipe *Ederraren* Joana *Eroa* emaztearena zen. Fernando *Katolikoak* agintea bere gain hartu zuen Joana eta Felipe etorri arte, Flandesen zeudelako. 1505-I-11n Zamorako Toron bildutako Gorteeek Fernando onartu zuten Gaztelako erreinuko gobernadore eta administratzaile gisa.

Fernando ez zen fio Felipe *Ederraz*, eta Felipe ere ez Fernandoz. Felipek Frantziako Luis XII. arekin eginak zituen isilpeko hitzarmenak, Gaztelako gobernua Joana *Eroaren* senarrak har zezan.

Fernando *Katolikoak*, ordea, Luis XII. arekin negoziatu eta Frantziako erregearen arreba Maria Orleanskoaren alaba Germana Foixkoarekin ezkondu zen⁹. Saiatu zen harekin Aragoirako oinordekoren bat izaten. Fernando hori baino lehen Gaztelako Enrike IV.a zenaren Joana *Beltranejarekin* ezkontzen saiatu zen. Joana Portugalen zegoen, ordea, eta Felipe *Ederraren* ordezkari De Veyre flandestarrak Portugalgo erregeak *Beltraneja* ongi gordeta edukitzea lortu zuen. Fernando *Katolikoak*, berriz, De Veyreren idazkaria atxilotu eta torturatzeko eta hiltzeko mehatxu eginda Feliperen gutunak dezifrarazi egin zituzkien.

Aldi berean, Fernando *Katolikoak* Kordobako Joan Fonseca apezpikua, Lope Conchillos idazkariarekin, agiri batekin bidali zuen Bruselara, Joana alabak aitaren alde abdika zezan. Felipe *Ederrak*, ordea, agiriaz jabetuta eta idazkaria torturatuta, Fernando-ren asmoen berri izan zuen, eta debekatu egin zuen emazte Joanarengana espainiarrik hurbiltzea. Gaztelako noble gehienak ere Joanaren eta Feliperen alde atera ziren.

Azkenean, hainbat negoziazioaren ondoren 1505eko azaroan Salamancan ituna egin zuten. Joana, Felipe eta Fernando izango ziren agintari, baina Fernandok gobernatuko zuen beste biak Flandestik iritsi arte⁹.

1.6. LEHEN KAPITULUKO OHARRAK

- ¹ XX. GAO - Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. COMECI 10. (234-241. or.).
- ² ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (17-21, 101, 107, 108, 183, 204, 286, 289, 293, 326, 331, 338. or.).
- ³ HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba (1181-1520). I. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 123. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2007. (341, 342. or.).
- ⁴ LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J. A. Colección de documentos medievales del convento de San Bartolomé (San Sebastián) (1250-1515). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 58. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1995. (150, 153, 156, 157. or.).
- ⁵ GARIBAI ZAMALLOA, E. Memorias de Garibai. Memorial Histórico Español: Colección de documentos, opúsculos y antigüedades que publica la Real Academia de la Historia. Tomo VII. Imprenta de José Rodríguez. Madrid, 1834. (48, 49. or.). (Fernando Gebara Bañez arrasatearra 1500-1511 bitartean jaioa zen, eta ezinezkoa da 1501-1502. urteetan Alkairora bidaia egin zuena izatea, Esteban Garibai historialari arrasatearrak hori idatzi arren. Arrasatera Fernando Gebara Bañezek ezpata ekarri zuela Egiptotik ere idatzi zuen. Ikus *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1521-1530)* liburuko [XVI. m. (25) 21] agiria).
- ⁶ MARTIR DE ANGLERIA, P. Documentos inéditos para la Historia de España. IX. alea. Epistolario. Estudios y traducción de José López de Toro. Madril 1953. II. alea. (232-238 gutunak. 3-14. or.).
- ⁷ GARIBAI ZAMALLOA, E. Compendio Historial de las Chronicas y Universal Historia Bartzelonan Sebastian Cormellas-ek inprimatua. 1628. 2. alea. XIX. liburua. 12 eta 13. kapituluak. (709-712. or.).
- ⁸ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. IV. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1971. (7, 8, 9, 13, 15, 17. or.).
- ⁹ PFANDAL, L. Juana la Loca. Austral bilduma, 17. Espasa-Calpe, S.A. Madril, 1945. (64-66, 74-77, 90. or.).
- ¹⁰ LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. III. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (397, 406-409. or.).
- ¹¹ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XVI. III. alea. Iruñea, 1985. (13. or.).
- ¹² ORELLA UNZUE, J. L. *Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (146, 177. or.).
- ¹³ ORELLA UNZUE, J. L. Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII-XV: Relación, intereses y delimitación de frontera. Mundaiz 4. Historia. EUTG-Mundaiz. Donostia, 1987. (128, 129. or.).

¹⁴ DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1977. (376, 402, 473, 581, 582, 584. or.).

¹⁵ ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Gipuzkoa en el Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (172, 184. or.).

¹⁶ ORELLA UNZUE, J. L. Euskaldunak Historian barrena. Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1989. (166. or.).

¹⁷ HIDALGO DE CISNEROS, C. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Durango. II. alea. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 21. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1989. (609-614. or.).

¹⁸ AGINAGALDE, F. B. Gipuzkoako leinuen aztarna bila (XV-XIX). Elkarlanak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1994. (41, 42, 46, 47. or.).

¹⁹ AROZENA, F. Guipúzcoa en la Historia. Minotauro argit. Madril, 1964. (122. or.).

²⁰ ALDABALDETREKU, R. Sasiola. Convento y Hospital. Deba, 2003. (45. or.).

²¹ STÜRTZE, A. eta beste. Euskal Hiztegi Historikoa. Gaiak argit. Donostia, 2004. (56, 57. or.).

²² XX. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zarandona y Balboa. Pleitos olvidados. 2420/1. (408-411, 425-431, 551-553. or.).

²³ ALVAREZ FERNANDEZ, C. *El Libro de los Bollones y la Escribanía Fiel de la Provincia de Gipuzkoa*, in El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (94. or.).

²⁴ ODRIOZOLA OIARBIDE, L. Historia de Zumaia. Zumaia, 1998. (223. or.).

²⁵ XX. Tres certificaciones del Rey de armas, de los blasones que corresponden a las casas de Lili e Idiaquez. Lilitarren Artxiboa. Donostiako San Telmo Museoa. 33. paper sorta. (3. or.).

²⁶ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea. Iruñea, 1979. (661, 669, 670. or.).

²⁷ AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI). I. Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (332. or.).

²⁸ BARKHAM HUXLEY, M. *La construcción naval vasca en el siglo XVI: la nao de “uso múltiple”*, in Cuadernos de Sección. Historia-Geografía 3. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (104. or.).